

Haurrentzako Plana

**Babesik gabe dauden
haurrei laguntzeko**



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**
Departamento de Cultura

© Argitaratzailea:
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Fotokonposaketa:
FLASH COMPOSITION, S. L.

Inprimaketa:
FLASH IMPRESION, S. L.

L.G.: BI-2165-00

Aurkibidea

Aurkezpena	7
1. Haurren Babesa Bizkaiko Lurralde Historikoan	9
• Lege markoa	9
• Bizkaiko Lurralde Historikoan 1998. urtean Haurren Babesaren arloan	12
egindako zerbitzuak eta jarduketak	
• Haur eta gazteak erakundeetan babesteko eta familietan integratzeko Atalaren	16
laguntza jaso duten adingabekoei buruzko datuak	
• Bizkaiko Lurralde Historikoko Haurrak Babesteko Sistemaren jardunaren ebaluazioa	21
2. Haurrentzako Planaren xedeak	23
3. Planaren burutzapena eta aldiak	25
4. Plana gidatzen duten abiaburu nagusiak	27
5. Zerbitzu Oinarrizkoen eta Espezializatuen eskumenak eta jardunbidea	33
6. Haurrentzako Plana: egitarauak, jarduketak eta ebaluaziorako adierazkariak	41
• 1. egitaraua: Haurrentzako Zerbitzuaren laguntza jasotzen duten adingabekoen	41
beharrizanen azterketa	
• 2. egitaraua: Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren baliabideen jardunaren	42
berrantolaketa eta hobekuntza	
– 2A azpiegitaraua. Haurrentzako Zerbitzuaren eta GUFEn arteko koordinazioa	42
– 2B azpiegitaraua. Egotetxeen sarearen kudeaketa eta gainikuspena erdiratzea.....	44
– 2C azpiegitaraua. Gizartekintza Saileko Haurrentzako Zerbitzuaren berrantolaketa	45
– 2D azpiegitaraua. Espedienteen informatizazioa	47
• 3. egitaraua: Erabakibideen kalitatearen hobekuntza Oinarrizko Gizarte	48
Zerbitzuetan eta Haurrentzako Zerbitzuan	
– 3A azpiegitaraua. Ikerketa-Ebaluazio prozesuaren hobekuntza	48
– 3B azpiegitaraua. Erabakiak hartzeko prozesuaren hobekuntza	49
• 4. egitaraua: Babeserako baliabideak adingabekoen beharriazanei egokitzea	50
– 4A azpiegitaraua. Familien alde esku hartzeko egitarauen garapena	50
– 4B azpiegitaraua. Familietan abegi egiteko baliabideak garatzea eta adingabekoen	51
beharriazanei egokitzea.	
– 4C azpiegitaraua. Egotetxeetan abegi egiteko baliabideak adingabekoen	52
beharriazanei egokitzea.	

• 5. egitaraua: Zerbitzu Espezializatuen eta Administraziooko beste erakunde eta 53 zerbitzu batzuen arteko koordinazioaren hobekuntza	53
– 5A azpiegitaraua. Zerbitzu Espezializatuen eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen 53 arteko Koordinazioaren hobekuntza.	53
– 5B azpiegitaraua. Zerbitzu Espezializatuen eta Administraziooko beste erakunde 54 eta zerbitzu batzuen arteko koordinazioaren hobekuntza.	54
• 6. egitaraua: Haurren eskubideen eta haurren babesari buruzko lege garapenaren..... 56 sustapena	56
• 7. egitaraua: Haurrentzako Planaren etengabeko ebaluazioa 57	57
7. Planaren aldien hurrenkera orokorra 59	59
Lehenengo eranskina: 61 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta eta Zerbitzu Espezializatuek babesik gabe aurkitzen diren haurren alde esku hartu ahal izateko behar dituzten Familietan Esku Hartzeko Egitarauen diseinua eta ezaugarriak	61
Bigarren eranskina: 67 Haur babesgabeen alde esku hartzeko Eskuliburuaren edukiari buruzko proposamena	67
Hirugarren eranskina: 73 Egotetxeetan abegi egiteko bideak egokitzeko proposamena	73

Aurkezpena

Garapen normala izateko arazoak dituzten adingabekoentzako laguntza hobetzeko konpromiso sendoa hartu du Bizkaiko Foru Aldundiak, eta konpromiso horren emaitza da, hain zuzen ere, «Haurrentzako Plana Babesik Gabe Dauden Haurrei Laguntzeko».

Azken hamarraldietan lortu dugun garapen eta ongizate mailak ez ditu guztiz ezabatu tratu txarrak, ezta bazterkeria edo pobrezia kasuak ere. Egoera horiek, gainera, bereziki larriak dira adingabekoei egokitzen zaizkienean.

Halako gertaerak, baina, ez dira antzematen errazak izaten; normaltasun itxuraren atzean, sarri askotan, babes edo itzalgabezia ostentzen da, eta guri egoera horiek zuzentzea dagokigu.

Hau da Haurrentzako Planaren helburua: babesgabeziaren kasuak sumatzeko aukera ematen diguten sistemak gehitzea, egoera horiek aurreikustea, erakunde arduradun guztien arteko koordinazioa areagotzea, erabakiak hartzeko prozesuak hobetzea eta ukitutako adingabekoei behar bezalako laguntza ematea.

Bizkaiko Foru Aldundia erakunde eskuduna da arlo honetan, baina haurrek pairatzen dituzten tratu txarren eta babesgabeziaren aurkako borrokaren ardura erakunde guztiena da, arazoa gizarte osoarena baita, gutariko guztiona, alegia.

Hortaz, honako hau da argitalpen honen xedea: haurrentzako plana ezagutaraztea eta gizarte osoari arazoak jabetzen laguntzea.

GIZARTEKINTZA SAILEKO FORU DIPUTATUA

Sin.: Ricardo Ansotegi Aranguren



Haurren babesa Bizkaiko lurralde historikoan

Lege markoa:

Adingabekoen arloko gizarte-politikak aldaketa nabarmenak izan ditu aspaldi honetan. Egia da gizateriaren historian beti egon dela babesik gabeko haurrenganako kezka: gurasoak hilda edo etxetik kanpo daudelako, edo gaitasunik ez dutelako, edo besterik ezean umeak bertan behera uzten dituztelako babesik gabe edo behar gorrian aurkitzen diren haurrak babesteko ardura. Baina aro moderno eta garaikidea arte ez zen argi eta garbi aldarrikatu babesik gabe aurkitzen diren haurrek gizartearen laguntzaren beharra dutela. Orduan bai, ongintzari buruz eman ziren legeen bitartez eta antzina ume abandonatuak hartzen zituzten etxeei buruzko araudien bitartez hasi ziren taxutzen eta moldatzen adingabekoak babesteko erakundeak, gaur egun ditugun erakundeen antzekoak.

1959ko azaroaren 20an Nazio Batuen Batzar Nagusiak Haurren Eskubideen Adierazpena onetsi zuen. Agiri horretan dago oinarrituta haurren babesari buruzko ikuskera modernoa. Adierazpenean ezarri ziren eskubideen dekalogoa apurka-apurka Nazio Batuetako estatu guztien legerietan sartu da.

1978ko Konstituzioa argitaratu eta gero egin ziren arauen bitartez, adingabekoen babesari buruzko legeria auzoko herrien legerien pare jarri zen. Azpimarratzekoa da **azaroaren 11ko 21/1987 Legea, Kode Zibilean eta Judiziamendu Zibilari buruzko Legean adopzioari buruzko zenbait artikulua aldarazi zituena** (EAO, 275. zenbakia, 1987ko azaroaren 17koa). Lege horrexek ezarri zuen behin betiko adingabekoak babesteko sistema berria.

Lege hura eman zenez gero herri erakundeak sistema berriaren gako bihurtu dira. Izan ere, legeak herri erakundeei eman die adingabekoen babesaren arloko eskumena, eta Adingabekoen Epaitegiei, berriz, zentzapenerako ahalmena.

Seme-alabak uztearen kontzeptuaren ordeztze itzalgabezia deritzon figura ezarri zen. Horrela, eskumena daukan herri erakundeak zuzenean har dezake bere gain oso larri dauden babesgabeko adingabekoen tutoretza. Gainera, lehen aldiz adopzioa umeak familietan erabat integratzeko elementutzat jo zen; babesgabeko umei familietan abegi egitearen bidea zabaldu zen, adingabekoak babesteko erakunde berria sortuz; Administrazioak nahiz epaileek adingabekoa ukitzen duten jarduketa guztietan beraren interesak lehenetsi behar dituztela adierazi zen abiaburu orokor gisa; eta Ministerio Fiskalari adingabekoen arazoetan ahalmen gehiago eman zitzaizkion, eta bai betebehari gehiago ezarri ere.

Lege hura eman eta handik aldi batera, **1989ko azaroaren 20an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Haurren Eskubideen Konbentzioa onetsi zuen.** Bertan 1959. urteko adierazpen zaharra bildu eta osatu egin zen. Besteak beste, haurrak eskubideen subjektuak direla adierazi zen, eta erakundeek haurrei buruzko edozein neurri hartzen dutenean haurraren interesak aintzat hartu eta lehenetsi behar dituztela

ezarri zen erakundeen jardunaren abiaburutzat. Estatu espainiarrak 1990eko azaroaren 30ean berretsizuen konbentzioa (1990eko abenduaren 31ko EAO).

Orduko legeria berriak lehendik ere betetzen zituen goian aipatu ditugun arau horiek. Hala eta guztiz ere, legea aplikatzeko orduan sumatu ziren hutsuneak bete behar zirela eta, eta gizartean sortzen ari ziren eskari eta beharriari berriak asetzeko asmoarekin, adingabekoak babesteko erakunde tradizionalak eraldatzeari ekin zitzaion. Helburu horrekin egin zen **urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, Adingabekoen Lege Babesari buruzkoa eta Kode Zibilaren eta Judiziamendu Zibilari buruzko Legearen zati bat aldatu zuena** (1996ko urtarrilaren 17ko EAO). Zioen azalpenak dioenez, lege horrek “babeserako lege-marko zabala ezarri du eta marko horren barruan jardun beharko dute herri botere guztiek, adingabekoen arazoetarako beren beregi dauden erakundeek, gurasoek eta herritar orok”.

Lege horretan adingabekoen eskubide guztiak bildu dira, alegia, nazioarteko itunbenetan dauden eskubideak; eskubideok osatu ere egin dira, eta ñabardurak erantsi zaizkie, adingabekoek euren eskubideak erabiltzeko behar besteko babesari izan dezaten; eta gizarte-babesik gabe dauden adingabekoei laguntzen jarduteko arauak ezarri zaizkio Administrazioari. Ildo horretan, legean arrisku-egoera eta itzalgabezia-egoera bereizi dira, herri erakundeen eskuhartzeen norainokoa egoera motaren arabera zehaztu dadin.

Beste alde batetik, legean neurri zehatz batzuk jarri dira administrazio-prozeduretako eta auzibideetako tramiteak arinagoak eta errazagoak izan daitezen, umeei familietan abegi egitearen figura hobetu eta malgutu egin da, eta adopzioa onar dadin gurasotzakoek egokiak izan behar dutela ezarri da, bete beharreko beharkizun gisa. Nazioarteko adopzioa ere arautu egin da, **Haurren Babesari eta Nazioarteko Adopzioen arloko Lankidetzari buruzko Hitzarmenak, Hagan 1993ko maiatzaren 29an egin eta Espainiak 1995eko ekainaren 30eko bitartekoaren bidez berretsitakoak** ezarritako arauekin bat etorriz, eta azkenik, Administrazioaren tutoretzari buruz legerian dauden manuak eraldatu egin dira.

Hemen aipatu ditugun xedapenez gainera badaude beste batzuk, nazioartekoak, Estatuak eta autonomi erkidegokoak, adingabekoen eskubideen babesari ukitzen duten alderdi solteak arautzeko eman direnak. Horrela osatzen da “haurren eskubideen kodea” deitu ahal diogun arau-multzoa. Agiri honetan ez dugu nahikoa lekurik aipatu ditugun azken xedapen horien xehetasunak azaltzeko (lanean hasteko gutxieneko adina, adingabekoen nazioarteko ohosketa, justiziaren administrazioa, osasuna, hezkuntza eta beste arlo batzuetako arauak dira).

ESKUMENA:

Euskal Autonomia Erkidegoak, **Autonomi Estatutuaren** 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskumen eskusiboa dauka, gizarte-laguntzaren arloaren barruan, adingabekoak babesten eta zaintzen diharduten erakunde eta establezimenduen antolamendua, araubidea eta jardunbidea, adingabekoen gizarteratzea eta haur eta gazteentzako politika zuzentzeko.

Azaroaren 25eko 27/83 Legeak, “**Autonomia Erkidegoaren Erakunde Erkideen eta haren Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani**” buruzkoak, 7. artikulua c) idatz-zatiko 1 eta 2. zenbakietan, foru organoei ahalmena eman zien bakoitzak bere lurraldean Erakunde Erkideen legeria betearaz dezaten, gizarte-laguntzaren eta haur eta gazteentzako politikaren esparruetan, Erakunde Erkideek zuzenean arlo horietan jarduteko daukaten eskumenaren kalterik gabe.

Lege horrekin bat etorri, **ekainaren 25eko 63/1985 Foru Dekretuaren eta uztailaren 2ko 211/1985 Dekretuaren** bitartez, Autonomia Erkidegoaren erakunde erkideek adingabekoen babes, zainketa eta gizartearatzearen arloan egiten zituzten zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoari insuldatzea onetsi zen.

Eskumenen transferentziaren ondorioz, **abenduaren 31ko 152/1985 Foru Dekretuaren** bidez Adingabekoen Babeserako Bizkaiko Probintzi Batza desegin egin zen eta harrezkero Bizkaiko Foru Aldundiak betetzen ditu bere lurralde-eremuan haur, gazte eta familiak babesteko eginkizunak, Gizartekintza Sailaren bitartez.

Azkenik, **Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legean** (1996ko azaroaren 12ko EHAA) gizarte zerbitzuen sistemaren antolamenduari ekin zaio. Lege horretan oinarritzko gizarte zerbitzuen eta gizarte zerbitzu espezializatuen bereizketa berretsi da, zerbitzu horien guztien eginkizunak deskribatu dira eta udalei eskumenak eman zaizkie, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearekin eta Lurralde Historikoetako Foru Organoei buruzkoarekin bat etorri.

ARAUTEGI ZEHATZA:

Autonomia erkidegoarena

- 302/1996 Dekretua, abenduaren 24koa, Nazioarteko Adopzioetarako Erakunde Laguntzaileen gaikuntza araupetu duena.

Foru arautegia

- 113/1986 Foru Araua, urtarrilaren 9koa, Adopzio Batza sortu duena.
- 161/1986 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Adingabekoak Baloratzeko Batzordea sortu duena.
- 1081/1986 Foru Araua, apirilaren 28koa, Adingabekoak Baloratzeko Batzordearen alderdi batzuk aldarazi dituena.
- 167/1988 Foru Dekretua, Diputatu Nagusiak emana, ondoko eginkizunak Gizartekintza Saileko buruari eskuordetzeko: tutoretza eta zaintza, abegi egiteen formalizazioa, adopzioetarako proposamenak eta erakunde laguntzaileen gaikuntza.
- 1602/1990 Foru Agindua, otsailaren 13koa, Adingabekoak Baloratzeko Batzordea berregituratu eta araupetu duena eta Adingabekoak Baloratzeko Batzorde Teknikoa izendura ezarri diona.
- 5679/1990 Foru Agindua, apirilaren 20koa, 1602 zk.koaren hutsak zuzendu dituena.
- Martxoaren 29ko 42/1994 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Foru Aldundiak gizarte zerbitzuen alorrean ematen dituen laguntzen eta dirulaguntzen deialdi publikoa onetsi duena.
- Martxoaren 5eko 27/1996 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren Araudi Organikoa eta Organigrama Ofiziala onetsi dituena.
- Otsailaren 16ko 6/1999 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Foru Aldundiak ematen dituen dirulaguntzen 1999. urterako deialdi publikoa onetsi duena.

Bizkaiko Lurralde Historikoan 1998. urtean Haurren Babesaren arloan egindako zerbitzuak eta jarduerak

Bizkaiko Foru Aldundiak haurren eta nerabeen babesaren arloan egiten dituen jarduketak legean ezarritako abiaburu hauek eraentzen dituzte:

- Adingabekoaren onura lehenetsi behar da.
- Adingabekoak bere etxean bere familiarekin egon behar du baldin eta horrek beraren interesei kalterik egiten ez badie.
- Adingabekoa familian eta gizartean integratu behar da.
- Adingabekoaren garapen pertsonala eragozten duten egoera guztiak aurrearretaren bidez saihestu behar dira.
- Herritarrei babesik gabeko adingabekoen egoeraz ohartarazi behar zaie.
- Gizartean partehartzea eta elkartasuna sustatu behar dira.
- Adingabekoak babesteko jarduketaren objektibotasuna, inpartzialtasuna eta segurtasun juridikoa zaindu behar dira eta pertsona eta disziplina anitzek esku hartu behar dute adingabekoei laguntzeko neurrietan.

Abiaburu horien arabera, jarduketa hauek egiten dira adingabekoak babesteko:

1. Adingabekoen balizko arrisku-egoerei aurrea hartzea eta benetako arrisku-egoerak konpontzea horretarako egokiak diren zerbitzuak ezarrituz.
2. Adingabekoak zaintzea.
3. Itzalgabezia dagoenean adingabekoaren tutoretza hartzea, Legearen aginduz.
4. Abegi egitea eta adopzioa.

Herri botereek arduratu behar dute guraso, tutore edo zaintzaileek euren eginkizunak egokiro bete dituzten, eta zerbitzu eskuragarriak eskatuko dituzte adingabekoen garapena ukitzen duten arlo guztietan. Zehatzago, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailari dagokio *“babesik gabe aurkitzen diren adingabekoei babes osoa emango zaiela eta haien beharrezan aseko direla bermatzeko behar diren herri baliabide guztiak jar daitezela sustatzea, adingabekoen eta euren familien arrisku-egoerak saihesteko aurreneurriak eta konpontzeko neurriak sustatzea eta erakundeen arteko ekintza bultzatzea haurren eskubideak bermatzeko, eta eginkizun horietan guztietan abiaburutzat hartu behar ditu adingabekoaren onuraren lehentasuna, arazoak antzemateko eraginkortasuna eta tramiteak egiteko bizkortasuna, gizarte-sentsibilizazioa, jarduketaren osotasuna eta banakotasuna, arloen arteko koordinazioa, adingabea ahal denean bere famili eta gizarte ingurunean iraunarazi beharra eta erabateko kalitatearen printzipioen araberako hobekuntza etengabea”*.

Jarduketa hori ondoko balioak errespetatuz burutu behar da:

- Eraginkortasuna, hau da, eskura dauden baliabideak ahalik ondoen erabiltzea.

- Jarduketetan parte hartzen duten pertsona guztien profesionalizazioa.
- Duintasuna nagusi izatea, hau da, pertsonaren berezko balioei begirunea izatea.
- Beste administrazioekin edo arloko beste erakunde batzuekin koordinaturik jardutea (Osakidetza, Hezkuntza, Justizia, udalak, Eudel...).
- Elkartasunaren sustapena, bazterkeria gainditzeko eta konpentsatzeko bidea den aldetik.
- Bezeroari orientabideak ematea, erabateko kalitatearen sistemen abiaburu nagusia den aldetik.
- Adingabekoek eta euren familiek, "bezero nagusiak" direnez gero, euren buruari buruzko erabakiak hartzen parte hartzea.

1. ARRISKU-EGOERETAN ESKU HARTZEKO 1999. URTEAN GARATU DIREN ZERBITZUAK ETA JARDUERAK:

Gaur egungo legeriaren arabera, "arrisku-egoera"tzat jo behar dira adingabekoaren garapen pertsonala edo gizarte-garapena eragotzi bai, baina adingabekoaren tutoretza Legearen aginduz hartzeko adinakoak ez diren egoera guztiak. Arrisku-egoeretan, beraz, adingabekoak jasaten duen kaltea ez da bera familiarengandik banatzeko bezain larria.

Horrelakoetan herri botereek esku hartu behar dute adingabekoen eskubideak bermatzeko, adingabekoek jasaten dituzten arriskuak eta gizarte-zailtasunak gutxitzeko eta adingabekoa eta bere familia babestuko dituzten faktoreak sustatzeko.

Eremu horretan Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak hurrengo jarduketak garatu ditu azken urtean:

- Haur, Gazte eta Familien aldeko Gizarte-Hezkuntzako Eskuhartzeen Plana garatzea, Gizartekintza Sailaren eta toki erakundeen arteko lankidetzarako hitzarmen markoaren barruan. Plan horren helburu behinena da haur eta gazteen kalterako izan daitezkeen eta moldagabeziak jokoerak edo babesgabezia nahiz abandonu egoerak eragin ditzaketen arrisku-egoeren aurkako aurreneurriak jartzea. 1998. urtean zehar, Plana 31 Oinarrizko Unitatetan garatu da, 37 esku-hartze-talderen bitartez.

1998. urtean sendotu da Planaren Jarraipenerako Batzordea, Planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko eginkizunei dagokienez. Batzordea 1997. urtean sortu zen eta toki erakundeen ordezkari diren bost teknikarik eta Gizartekintza Sailaren ordezkari diren bost teknikarik osatzen dute.

- Haurrei, gazteei eta familiei laguntzea eta haiek gizarteratzea xede duten erakunde eta zentruen mantenimendurako dirulaguntzak eman dira, eta bai erakunde eta zentru horien egitarauak eta jarduerak burutzeko dirulaguntzak ere.
- Gizarte eta ekonomi arazoak dituzten adingabekoen familiei laguntza ekonomikoak eman zaizkie.
- Osabidezko Hezkuntzaren Partzuergoak garatutako proiektuen 50% finantzatu da. Proiektu horien bidez zailtasunak dituzten umeak eta gazteak gizarteratzen dira. Bestalde, Bizkaiko Lurralde Historikoan Osabidezko Hezkuntza Plana garatu egin da. 1998. urtean egitarauak bi

izan dira: Osabidezko Hezkuntzaren Egitaraua (San Mames Zentrua) eta errefuxiatuen seme-alabentzako Etxe-Eskolaren Proiektua.

2. ZAINZA ETA TUTORETZA EGOERETAN ETA BANANTZEKO ARRISKU LARRIKO EGOERETAN ESKU HARTZEKO GARATU DIREN ZERBITZUAK ETA JARDUKETAK:

Adingabekoei laguntza emateko (a) euren zaintza edo tutoretza Foru Aldundiak bere gain hartu behar duenean babesgabezia egoera sor dadin ekiditeko edo babesgabezia egoera konpontzeko, eta b) jasaten duten babesgabeziaren larritasunagatik familiarengandik bananduak izateko zorian dauden adingabekoei laguntzeko, Gizartekintza Sailak ondoko zerbitzu eta baliabide hauek erabiltzen ditu:

- Egotetxeetan abegi egiteko zerbitzuak. Alde batetik Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (G.U.F.E.) menpe diharduten zentru eta etxeek egiten dituzte zerbitzu horiek, eta beste alde batetik, Gizartekintza Sailarekin hitzartuta dauden zentru eta etxeek. Gaur egun GUFek lau zentru eta zazpi etxe ditu adingabekoei egotetxeetan abegi egiteko zerbitzuetarako. Guztira 161 adingabeko bizi dira lau zentruetan eta 82 zazpi etxeetan. Beraz, Haurrentzako Zerbitzuak bere zaintza edo tutoretzapean dituen 243 adingabeko horiei laguntza emateko ardurua GUFeren zentru edo etxeei eman die. Beste 232 adingabeko Gizartekintza Sailak erakunde eta elkarte pribatuekin hitzarturik dituen zentru eta etxeetan bizi dira.
- Familietan abegi egiteko zerbitzuak. Zerbitzu hauen bitartez adingabekoak abegi egiten dion familiaren bizitzan bete-betean parte har dezan lortu nahi da. Zerbitzuen erabiltzaileek adingabekoa zaindu egin behar dute, euren ondoan eduki behar dute, elikatu eta hezi egin behar dute eta prestakuntza osoa hartzeko bideak eskaini behar dizkiote. Abegi egiteko hiru modalitate daude: abegi arrunta, iraunkorra eta adopzioaren aurrekoa. 1998. urtean guztira 107 adingabeko gehiagori egin zaie abegi, horietariko 9ri abegi arrunta, 56ri iraunkorra eta 42ri adopzioaren aurrekoa.
- Familietan Abegi egiteko Egitaraua, Agintzari Sociedad Cooperativa enpresak adjudikazio bidez burutu duena. Egitarau hori 1997an hasi zen. Haren helburu nagusia umeei, ahal dela ume koskorrei, familietan abegi arrunta edo iraunkorra egin dakiela sustatzea da, ez adopzioaren aurrekoa baina. Egitarau honen bitartez 1998. urtean 15 umeri egin zaie abegi familietan.
- Tratu txarrak edota sexu erasoak jasan dituzten adingabekoei laguntza psikologikoa emateko eta familiaren elkarbizitza berregituratzeko egitaraua. Beren beregi kontratatutako lan-talde bat (Zutitu) ari da egitarau hori betetzen. 1998. urtean lan-talde horrek laguntza espezializatua eman die 26 familiatako 52 pertsonari.
- Sailaren zaintza edo tutoretzapean dauden adingabekoei laguntzeko egitaraua. Bizgarri Elkar-teak dihardu egitarau horretan, adingabeak euren famili ingurunean berriro sartzeko helburuarekin. Egitarau honen bidez 1998. urtean 50 adingabekori eman zaie laguntza.
- Ijito adingabeko eta familien alde esku hartzeko proiektua. 1998. urtean jarri zen abioan, Iniziativa Gitana elkar-tearen eta Gizartekintza Sailaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren bitartez. Egitarau honen barruan 1998. urtean 83 ijito umeri eman zaie laguntza.
- Abegi, Informazio eta Orientazio Zerbitzua (AIOZ). 1997ko urrian hasi zen lanean, Emankor enpresari adjudikazioa emanda. Bizkaiko Foru Aldundiak egitarau honen %50 finantzatzen du

Gizartekintza Sailaren bidez, eta Osabidezko Hezkuntzaren Partzuergoak finantzatzen du beste %50a. Egitarauaren helburua, funtsean, Sailaren zaintza/tutoretzapean dauden adingabekoei laguntza ematea da, euren familiekin berriro bat egiterik lotu ez eta adin nagusitasunera heltzen direnerako oraindik babes-zentruetan bizi direnei, hain zuzen ere. Egitarauaren bitartez, babes-espeditzea irekita daukaten eta jatorrizko familiarengana itzultzerik ez duten 16 eta 21 urte arteko gazteei lan-munduan eta gizartean moldatzen lagundu nahi zaie. 1998. urtean egitarau honen barruan 69 gaztek jaso dute laguntza.

- Adopzio Egitaraua. Adingabekoa beste pertsona baten edo pertsona-talde baten famili bizitzan erabat integratzea lortzen da egitarau honen bidez, egoera horren ondoreak filiazio biologikoarenak bezalakoak direla. Horrelakoetan adingabekoa jatorrizko familiarekin izan dituen lotura juridikoak eten egiten dira. Bizkaiko Foru Aldundiak jarduketak egiten ditu Nazio Adopzioaren arloan (1998. urtean 31 epai-auto eman dira) eta Nazioarteko Adopzioaren arloan (1998. urtean egokitasunari buruzko 128. ebazpen eman dira eta nazioarteko 26 adopzio ebatzi dira).
- Beste jarduera batzuk:
 - ⇒ Adingabeko atzerritarrei aldi baterako abegi egiteko egitaraua. Beronen bidez 1998. urtean 202 adingabekori eman zaie laguntza.
 - ⇒ Mungia eta Portugaleteko udal haurtzaindegiei langileriaren eta gizarte segurantzaren kostuak finantzatzea.
 - ⇒ Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioak antolatutako Autonomi Erkidegoen arteko Batzorde Teknikoan eta Zuzendari Nagusien Batzordean parte hartzea. Batzorde horien helburu nagusia autonomi erkidego guztietan umeen babesaren arloan azaltzen diren arazoak aztertea da, jardunerako eta koordinaziorako propsamenak batera gertutu ahal izateko.
 - ⇒ Familia barruko indarkeriari buruzko lan-taldean parte hartzea, Autonomi Erkidegoen arteko Batzorde horren barruan.
 - ⇒ Haurrei ematen zaizkien tratu txarrei buruzko azpibatzerde teknikoan parte hartzea. Aldundiarren eta Osakidetzaren batzerde misto batek sortu duen azpibatzerde horrek gizarte-osasun esparruan dihardu.
 - ⇒ Umeen Babesarekin zerikusia duten gaiet buruzko ikastaro eta biltzarretara joatea.
 - ⇒ Haurrentzako Plana idaztea, Gizartekintza Sailaren, GUFEn eta haurrentzako zerbitzuak egiten dituzten erakunde pribatuen etorkizuneko jarduketak modu antolatuan eta ebaluagarrian diseinatuz. Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gizarte Psikologia eta Portaeraren Zientzien Metodologia Saileko Haurren Babesaren arloko Ikerketa eta Preskakuntza Unitateko zenbait kideren laguntza jaso da. Gizartekintza Saileko eta GUFeko teknikariek osatutako batzerde batek plana idazteko aholkuak eman dizkie.


Haur eta gazteak erakundeetan babesteko eta familietan integratzeko Atalaren laguntza jaso duten adingabekoei buruzko datuak

Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren haurrak (1996ko Biztanle Zentsuaren arabera)

18 urtetik beherako haurrak guztira: 180.012

Haurren banaketa eskualdeka

	Uribe-Kosta	Enkarterriak	Arratia-Ibaialdeak	Durango	Busturia-Markina	Bilbao
0-3 urte	4.597	5.689	2.962	1.626	1.402	7.231
4-7 urte	6.681	8.668	4.251	2.308	2.086	10.262
8-11 urte	7.711	10.471	5.014	2.849	2.461	11.754
12-15 urte	9.645	13.620	6.352	3.610	3.091	14.564
16-17 urte	5.876	8.566	3.967	2.087	1.895	8.716
< 17 urteko haurrak guztira	34.510	47.014	22.546	12.480	10.935	52.527



Haurren banaketa adinaren arabera


	Kp.	%
0-3 urte	23.507	%13.1
4-7 urte	34.256	%19.0
8-11 urte	40.260	%22.4
12-15 urte	50.882	%28.2
16-17 urte	31.107	%17.3
Guztira	180.012	

Haurren portzentaia guztirako biztanle kopuruan

	Haurrak	Biztanleak guztira	%
Uribe-Kosta	34.510	192.227	17.9
Enkarterriak	47.014	307.894	15.3
Arratia-Ibaialdeak	22.546	135.449	16.6
Durango	12.480	71.541	17.4
Busturia-Markina	10.935	70.831	15.4
Bilbao	52.527	357.574	14.7
Guztira	180.012	1.135.516	15.9

Haurrentzako Zerbitzuan 1998ko abenduaren 31n hasita zeuden espedienteak Kopurua guztira: 1.344

	Kp.	%
Familiaren etxean	544	%40.5
Egotetxeetan abegi eginda	470	%35.0
Familietan abegi eginda	330	%24.5



Egotetxeetan eta familietan abegi egin zaien adingabekoen adinak. 1998. urtea.

Egotetxeetan abegi egin zaien adingabekoen adinak

	Kp.	%
0-3 urte	21	4.5
4-6 urte	27	5.7
7-10 urte	54	11.5
11-14 urte	148	31.5
15-17 urte	188	40.0
≥ 18 urte	32	6.8
Guztira	470	

Adopzio aurreko modalitatean 1998an abegi egin zaien adingabekoen adinak


	Kp.	%
0-6 hilabete	6	14.3
7hilabete-3 urte	18	42.9
4-7 urte	11	26.2
8-10 urte	4	9.5
>10 urte	3	7.1
Guztira	42	

1998an modalitate iraunkorren abegi egin zaien adingabekoen adinak

	Kp.	%
0-9 hilabete	2	3.7
10 hilabete-5 urte	13	24.1
>5 urte	39	72.2
Guztira	54	

1998an adopzio-autoa egin zaien adingabekoen adinak

	Kp.	%
0-9 hilabete	3	9.7
10 hilabete-5 urte	13	41.9
>5 urte	15	48.4
Guztira	31	


Babes-espeditentea hasita duten umeen batezbesteko adinaren bilakaera¹

¹ 534 espeditenteko laginetik ateratako datuak.


Babes-espidentea hasita duten umeen sexua

	Neskatoak	Mutikoak
1995	%46.2	%53.8
1996	%51.4	%48.6
1997	%42.9	%57.1
1998	%44.3	%55.7


Hasitako eta amaitutako espidenteen guztirako kopuruak urteka



Hartutako zaintza eta tutoretzen kopuruak urteka



Kasuak Haurrentzako Zerbitzuari jakinarazi/bidali dizkioten iturriak. 1998. urtea.



“Beste batzuk” multzoan ondokoak sartzen dira: Ertzaintza eta Udaltzaingoa (jakinarazpenen %4.2), Adimen Osasuneko Zerbitzuak (%1.3), ikastetxeak (%1.6), beste autonomi erkidego batzuk (%3.9) eta Haurrentzako Zerbitzua bera (%6.1).


Kasuak Haurrentzako Zerbitzuari jakinarazi/bidali dizkioten iturrien bilakaera. 1995 eta 1998. urteak

	1995	1998
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak	%44.7	%54.7
Fiskaltza/Epaitegia	%7.8	%15.4
Familia	%24.2	%7.4
Ospitalea	%8.6	%5.5
Beste batzuk	%14.7	%17.0


Egotetxeetan abegi egindako adingabekoen banaketa

	1997	1998
GUFeren egotetxeak	%47.3	%51.5
Hitzartutako egotetxe pribatuak	%52.7	%48.5

Familietan abegi egiteko modalitateen bilakaera urteka



	1995	1996	1997	1998
Abegi iraunkorra	%62.5	%53.5	%57.5	%52.3
Adopzio aurreko abegia	%34.7	%43.1	%27.4	%39.3
Abegi arrunta	%2.8	%3.4	%15.1	%8.4



	1995	1996	1997	1998
Administrazio-abegiak	%57.0	%41.4	%49.3	%37.4
Epai-abegiak	%43.0	%58.6	%50.7	%62.6

Bilakaera Nazio Adopzioaren arloan

	1995	1996	1997	1998
Eskabideak	139	113	107	70
Adopziorako proposamenak	23	41	37	27
Ebatzitako adopzioak	20	23	16	31

Bilakaera Nazioarteko Adopzioaren arloan

	1997	1998
Eskabideak	172	186
Egokitasunari buruzko ebazpenak	72	128
Ebatzitako adopzioak		26
Aurreesleipenak		10

Bizkaiko Lurralde Historikoko Haurrak Babesteko Sistemaren jardunaren ebaluazioa

Haurrentzako Plan hau osatzen duten egitarauak eta jarduketak Bizkaiko Lurralde Historikoko Haurrak Babesteko Sistemaren jarduna aztertzeke prozesu baten ondotik etorri dira. Prozesu horren bitartez identifikatu dira aldatu beharreko alderdiak, alegia, Sistema horrek arriskuan edota babesik gabe dauden umeei eta euren familiei eskaintzain dien laguntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetu ahal izateko egin beharreko aldakuntzak. Azterketa hori egiteko bi motatako informazioak erabili dira:

1. Oinarrizko zerbitzuetan eta zerbitzu espezializatuetan diharduten arduradun teknikoek eta profesionalen gogoetak, hau da, teknikari eta profesional horiek eguneroko lanean arazoak bertatik bertara ikusten dituztenean eta laguntza ematen saiatzen direnean ateratzen dituzten ondorioak.

2. Azken urteotan egindako azterlanetatik jasotzen diren datuak, eta zehatzago honako hauek:
- Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako aparteko txostena, “Euskal Autonomia Erkidegoan babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako laguntza” izenburukoa, 1997ko irailean argitaratua.
 - “Bizkaiko Lurralde Historikoan arriskuan dauden haur eta gazteei buruzko azterlana”, Agintzari S. Coop.ek 1997an egindakoa, Gizartekintzako Plangintza Zerbitzuak eskaturik.
 - “Bizkaiko Lurralde Historikoko Haurrak Babesteko Sistemaren jardunaren azterketa”, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gizarte Psikologia eta Portaeraren Zientzien Metodologia Saileko Haurren Babesaren arloko Ikerkuntza eta Prestakuntza Unitateak 1998ko ekainetik 1999ko urtarrilera bitartean egin duena. Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak eskatu zion azterlan hori egiteko, honako Haurrentzako Plan hau taxutu eta idazteko oinarri izan zedin. Hona hemen zeintzuk izan ziren azterlan haren helburu zehatzak:
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren Erakunde-Babes eta Famili Integraziorako Atalaren eta GUFEn jardunbidea zehatz-mehatz ezagutzea, haurren babesgabezia egoeretan esku hartzeko prozesuetako aldi eta ataza guztiak arakatuz (harrera, ikerketa-ebaluazioa, hasierako erabakiak hartzea, esku hartzea, espedienteari amaiera ematea).
 - Bizkaiko Lurralde Historikoan Erakunde-Babes eta Famili Integraziorako Atalaren, GUFEn eta, oro har, Haurrak Babesteko Sistemaren jardunbide orokorrean eta eraginkortasunean eragin nabarmena duten “alde onak” eta “alde txarrak” identifikatzea. “Alde txar” horien artean, babestu beharreko haurrei eta euren familiei ematen zaien laguntzaren kalitatea hobetzeko ezinbestez zuzendu behar direnak identifikatzea.
 - Goian aipatu zerbitzu horien eta, oro har, Babes Sistemaren jardunbidearen hobekuntzaren gako izan daitezkeen faktoreak identifikatzea, hala Foru Aldundiaren barruko faktoreak nola beste zerbitzu batzuen esku dauden faktoreak.
 - Orientabideak ematea eta antolamendurako hautabideak, esku hartzeko baliabideak eta jarduteko prozedurak proposatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Haurrak Babesteko Sistemaren jardunbide orokorra hobetzeko balio izango dutenak.

Haurrentzako planaren xedeak

Plan honen xedea Bizkaiko Lurralde Historikoko Haurrak Babesteko Sistemaren jardunbidea hobetzeko prozesuari ekitea da. Ildo horretan hobekuntza nabarmena lortu behar da babestu beharreko haurrei eta euren familiei ematen zaien laguntzaren kalitatean. Hobekuntza prozesu horren bitartez, Bizkaiko Haurrak Babesteko Sistemaren gaurko jardunbidea nazioarteko zientzilari eta profesionalen erkidegoak itundutako estandarrei egokitu behar zaie, haurren babesgabeziaren arazoari ekiteko eta arazo hori jasaten duten haur eta familiei laguntza emateko ekintzetarako nazioartean jarri diren ereduak, hain zuzen ere.

Haurrentzako Plan honetan zehatz azaltzen dira ezarri, garatu edo aurrera eraman beharreko jarduketan proposamenak. Jarduketa horiek zuzeneko eragina izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoko Haurrak Babesteko Sistemaren egungo jardunbidearen eta eraginkortasunaren hobekuntzan. Zehazki, Haurrentzako Planak helburu nagusi hauek ditu:

HAURRENTZAKO PLANAREN XEDE NAGUSIAK

1. Gizartekintza Sailaren Haur, Gazte eta Familientzako Zerbitzuko Erakunde-Babes eta Famili Integrazioarako Atalaren barruko antolamendua, GUFEn barruko antolamendua eta erakunde bion arteko koordinazioa hobetzea.
2. Haurrentzako Zerbitzua beste erakunde batzuekin eta Administrazioaren beste zerbitzu batzuekin hobeto koordinatzea (Hezkuntza, Osasuna, Justizia eta abar).
3. Haurren babesgabezia egoeren ikerketa eta ebaluazioaren kalitatea hobetzea, (a) talde-lana sustatuz, (b) Haurrentzako Zerbitzuan profesional bakoitzaren ardurapean dauden kasuen kopurua gutxituz, eta (c) Haurrentzako Zerbitzuak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek erabiltzen dituzten prozedura, protokolo eta txosten-ereduak eguneratuz eta berdinduz.
4. Haurrak Babesteko Sistema osatzen duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Zerbitzu Espezializatuen zerbitzu, baliabide eta egitarauen arteko koordinazioa hobetzea, (a) "arrisku-egoerak" deritzen multzoan sailkatu behar diren kasuen muga eta deskripzio zehatzak ezarri (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Haurrentzako Zerbitzuaren adostasunarekin), eta (b) mota horretako kasuetan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, Gizarte-Hezkuntzako Eskuhartze Taldeek (G.H.E.T.) eta Haurrentzako Zerbitzuak izango dituzten ardurak eta eginkizunak zehatz-mehatz definituz, talde horien guztien adostasunarekin.
5. Haurren babesgabezia kasu larrietan eta Itzalgabezia eta Zaintza kasuetan esku hartzen duten profesional eta lan-talde guztien ardurak eta eginkizunak definitzea: Haurrentzako Zerbitzuarenak, zentru eta egotetxeen zuzendariak, GUFeko profesionalak, zentru eta egotetxeetako hezitzaileak, eta Gizartekintzarekin hitzarturik dauden Familien aldeko Eskuhartze Taldeenak.

6. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan eta Haurrentzako Zerbitzuan erabakiak hartzeko prozedura hobetzea, (a) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan bideratu behar diren kasuak eta Haurrentzako Zerbitzuari eman behar zaizkionak bereizteko irizpideak bateratuz, (b) kasuak zerbitzu batetik bestera pasatzeko prozedura definituz, eta (c) erabakiak hartzeko irizpideak denen adostasunarekin ezarriz.
7. Bizkaiko Lurralde Historiko osoan Familien alde Esku Hartzeko Egitarauak abian jartzea, (a) "arrisku" kasuetan egin behar den "gutxieneko" eskuhartzea zer den definituz (aldia, baliabideak eta abar), (b) Bizkaiko alde guztietan "arrisku" kasuetan esku hartzeko baliabide berdinak egon daitezela sustatuz, eta (c) "Familia Batzeko" egitarauak garatuz Itzalgabezia/Zaintza kasuetarako.
8. Familietan abegi egitearen baliabidea sustatu eta hobetzea, batez ere familietan abegi egite arruntak eta besteren familian abegi egiteak garatuz.
9. Egotetxeetan abegi egiteko bideak Itzalgabezia/Zaintza egoera duten adingabekoen beharritzanei egokitzea, haien espezializazioaren areagotzea sustatuz, eta egotetxe handiak etxe bihurtuz (gehienez 12 plazakoak) edo zentru txiki bihurtuz (gehienez 20 plazakoak).
10. Babestu beharreko adingabeko guztiek euren burua behar bezala garatzeko behar dituzten laguntza eta tratamendu baliabide zehatzak jasoko dituztela bermatzea.

Planaren burutzapena eta aldiak

Planaren burutzapena

Haurrentzako Plan honetan definitu dira Bizkaiko Foru Aldundiak aldez aurretik ezarrita dauden helburuak betetzeko egin behar dituen jarduketak. Planean ez dira definitu, ostera, Administrazioaren beste zerbitzu batzuek Haurrak Babesteko Sistemaren jardunbidea eta eraginkortasuna hobetzeko egin behar lituzketen edo egin lituzketen jarduketak (adibidez, Hezkuntza, Osasuna edo Justizia zerbitzuak). Alabaina, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egin behar lituzketen jarduketaren batzuk bai sartu dira planean.

Haurrentzako Planaren bidez egin nahi zaio aurre Bizkaiko Haurrak Babesteko Sistema hobetzeko beharrianari. Horregatik, garrantzitsutzat jo diren arazo guztiak planean sartu dira. Plan honek jarduketa asko biltzen dituenez, jarduketok hurrenkera eta antolamendu jakinen arabera burutu behar dira eta bero-rietan kontuan hartu behar dira sare espezializatuan parte hartzen duten eragile guztiak (Haurrentzako Zerbitzua, GUF, egotetxeak eta etxeak, familietan esku hartzeko egitarauak, familietan abegi egiteko egitarauak eta abar). Plan hau abiaraztea zeregin konplexua da; beraz, beharrezkoa izango da profesional, zerbitzu, autonomiadun erakunde eta hitzartutako erakunde askoren arteko koordinazioa sustatzea.

Hori dela eta, ezinbestekotzat jo da Planean proposaturiko jarduketak abian jarriko dituen buruzagitzak iraunkorren bat edukitzea. Gizartekintza Sailaren Zuzendaritzak eta Haur, Gazte, Familia eta Emakumeentzako Zerbitzuaren Burutzak jardun behar lukete Planaren buruzagi. Alabaina, Zuzendaritzaren eta Zerbitziburutzaren eginkizunek eta eguneroko arazoen Plana abiarazteko jardueren eguneroko eta hurbileko koordinazioa eragotziko dutela uste izaten bada, litekeena da Zerbitzuko profesionalen bat behin-behinean Planaren Koordinatzaile aritzea. Saileko Zuzendaritzak eskuordeturik, profesional horrek Plana abian jartzeko jarduerak burutu eta koordinatzeko ardura eta agintea hartuko lituzke. Beti ere, Haurrentzako Zerbitzuko Burutzarekin koordinaturik eta beronek zuzenean gainikusirik egingo luke lan.

Baliabideak aldarazteko, eguneratzeko eta baliabide berriak sortzeko proposamen asko bildu dira Plan honetan, eta horiek hurrenkera jakin batean burutu beharko dira. Horrela, lehenengo jarduketan emaitzek baldintzatuko dute hurrengo jarduketan nondik-norakoa. Horregatik oraingoz ezin dugu zehatz-mehatz kalkulatu Plana bere osoan abian jartzeko kostuaren balorazio ekonomikoa. Hala ere, zenbait ohar egin daitezke:

1. Planean sustatu diren jardueretariko askotan ez dago inbertsio ekonomikorik egin beharrik. Eginkizunak berriro antolatu, irizpide berriak ezarri eta kasuen banaketa aldatu besterik ez da egin behar.
2. Planean proposatu diren egitarauetariko askotan baliabide ekonomiko eta materialak inbertitze-ko modua aldatzea proposatzen da, gastua gehitu gabe baina. Beraz, eraginkortasuna areagotzearen gastuaren banaketa aldatu besterik ez da egingo.

3. Zenbait baliabide hobetzea lortuko bada inbertsio ekonomiko eta gastu gehiago egin beharko dira ezinbestean. Dena dela, aurre egiteko moduko inbertsio eta gastuak izango bide dira. Egotetxeetan abegi egiteko sarearen adibidea jarriko dugu. Familietan abegi egiteko baliabideak eta famili tratamendurako egitarauak garatu ahala uste izatekoa da egotetxeetan bizi diren adingabekoen kopurua murriztu egingo dela, baina ez dakigu oraindik zein neurritan. Baina, aldi berean, egotetxeetan dauden adingabekoen kopurua gutxitzen denean beharrezkoa izango da egotetxe handiak kendu eta etxeak sortzea, eta horretarako inbertsio ekonomikoa egin beharko da.

Planaren aldiak

Honako plan hau lau urterako egin da. Barruan biltzen dituen jarduketak lehenetsun eta hurrenkera jakinen arabera antolatuta daude. Beraz, horietariko batzuk osorik burutu ahal izango dira lau urteko aldi horretan; beste batzuk, aldiz, hasi egingo dira edo zati batean garatuko dira epealdi horretan eta gerora burutuko dira.

Plana gidatzen duten abiaburu nagusiak

Haurrentzako Plan hau funtsezko abiaburu batzuetan oinarrituta dago. Abiaburu horiek gidatuko dituzte Haurren Babesean diharduten zerbitzuen eskuhartzeak. Abiaburuok nazioarteko profesional eta zientzilarien erkidegoaren oniritzia dute, eta horietariko asko gaurko legerian jasorik daude.

1. HAURRAREN BEHARRIZANAK, HAURREN ESKUBIDEEN BABESA ETA ZAINZA ETA ADINGABEKOAREN ONURAREN LEHENTASUNA KONTUAN HARTZEA

Haurrak Babesteko Sistema osoa babesik gabe dauden adingabekoen beharrizanak aseko direla bermatzeko dago antolatuta, hau da, oinarritzko beharrizanak bete gabe dituzten adingabekoei laguntzeko. Estatuak arazo pribatuaren eremuan esku hartzen du helburu bakarrarekin, alegia, beharrizan horiek aseko direla bermatzeko helburuarekin. Beraz, baliabideen sorkuntzan eta sistemaren antolakuntzan, oro har, adingabekoen beharrizanak asetzea hartu behar da helburutzat.

Eskuhartze prozesu osoan zehar, Haurrak Babesteko Zerbitzuek arreta eta kontu berezia izan behar dute umeen eskubideak errespetatzeko eta ez gutxiesteko, batez ere informaziorako eskubidea, datu pertsonalak isilpean edukitzekoa, eta norbera ukitzen duten erabakietan parte hartzekoa. Gainera, haurren gurasoen eta, oro har, gizartearen eskubideak zaindu eta errespetatu egin behar dituzte. Hala eta guztiz ere, inoiz gerta liteke haurren interesak eta eskubideak eta gurasoenak kontrajarriak eta bateraezina izatea. Horrelakoetan Haurrak Babesteko Zerbitzuek haurren eskubideak lehenetsi behar dituzte eta gurasoak jakitun jarri behar dituzte euren eskubideak erabili nahi izanez gero horretarako dituzten bideez.

2. BALIABIDEAK BEHARRIZANEI EGOKITU BEHARRA, BALIABIDE ESPEZIALIZATUEN GARAPEN “OREKATUAREN” GARRANTZIA, ETA BABESPEKO HAURREN EGOERAK BANAN ETA ETENIK GABE EBALUATU BEHARRA

Haurrak Babesteko Sistemak bere laguntza jaso behar duten haur eta familien beharrizanei aurre egiteko adinako baliabideak eduki behar ditu. Bai jarduketak eta bai erabiltzen diren baliabideek malguak, askotarikoak eta nahikoak izan behar dute eta kasuan kasuko beharrizanei egokitu behar zaizkie. Horretarako, Haurrak Babesteko Zerbitzuek, bai oinarritzkoek eta bai espezializatuek, euren baliabideak ezezik, herri zerbitzuen sarean lehendik dauden baliabideak ere ahalik ondoen aprobetxatu behar dituzte.

Haurren Babesaren arloko eskuhartzearen oinarri gisa, beti baliabide berberak erabili beharrean kasu eta une bakoitzean egokiak diren baliabideak esleitu behar dira. Eskuhartze banakotuaren printzipio hori bete dadin baliabidea kasuan kasuko beharrizanei egokitu behar zaie, eta konponbidea ez da bat bera izango kasu guztietarako. Harrera, ikerkuntza eta ebaluazio eginkizunak betetzeko erabiltzen diren baliabideek eginkizun horiek behar bezain arin betetzeko adinakoak izan behar dute, baina aldi berean behar besteko kalitatea izan behar dute edukien eta prozeduren aldetik. Umeei tratu txarrak ematen dizkieten familiak onbideratzeko baliabideak, behar denean adingabekoei familietan abegi egiteko baliabi-

deak, umeok adoptatzeko baliabideak edo egotetxeetan hartzekoak, horiek guztiak modu orekatuan garatu behar dira, babesik gabe dauden adingabekoen premiak behar bezala asetzeko moduan. Baliabide guztiak dira beharrezkoak eta bata bestearen osagarriak ere badira. Horietariko bat ere ez da ez gehiegi ez gutxiegi zuzkitu behar. Inoiz ere ez da onartu behar, esate baterako, adingabeko bat egotetxean sartzea haren familia onbideratzeko baliabiderik ez dagoelako edo abegi egiteko familiarik ez dagoelako edo abegi egiteko prest dauden familiak haren beharrianetarako egokiak ez direlako.

Sekula ez dugu esan behar esku hartzeko neurri eta baliabideak “txarrak edo onak” direnik, edo besteak baino “hobeagoak edo txarragoak”. Baliabide bakoitzak kasu eta egoera jakin batzuetarako balio du, eta bestelako kasu eta egoeretan aplikatzen bada ondorio txarrak ekar ditzake.

Denbora igaro ahala babespeko haurren eta euren familien egoera eta beharrianak aldatu egiten dira. Beraz, behar dituzten baliabideak ere denboraren buruan bestelakoak izango dira. Haurraren bizitzan eta familiaren bilakaeran orain egokiak diren neurriak eta baliabideak baliteke bihar-etzi egokiak ez izatea. Horregatik, erabiltzen diren neurriak eta baliabideak etenik gabe ebaluatu behar dira, eta malguak izan behar dute, kasuaren bilakaeraren arabera aldatu ahal izan daitezen.

3. HAURRAK BABESTEKO SISTEMAREN BATASUNA ETA SAREKO LANA

Abiapuntu gisara, erkidegoarentzako baliabide guztiak eta gizarte zerbitzu guztiak Sistema bakar baten osagaitzat hartzen ditugu, eta haien helburua babesik gabe dauden haurrei laguntzeko behar diren zerbitzu guztiak eskaini ahal izatea dela onartzen dugu. Hala, bada, Gizartekintza Sailaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Gizarte-Hezkuntzako Eskuhartze Taldeak, Haurrentzako Zerbitzua, GUFÉ, Foru Aldundiarekin hitzartutako egitarau eta zentru guztiak, eta beste hainbat zerbitzu (ikastetxeak, osasun sistema, polizia etab.), denek batera sistema bakarra osatzen dutela onartu behar dugu. Banaka hartuta horietariko batek ere ezin die aurre egin babesik gabe dauden adingabeko guztien beharriari. Guztiek batera eta elkarrekin koordinaturik jardun behar dute, bestela ez dago bermatzerik adingabeko horien beharrianak behar bezala aseko direla. Koordinazio eta batasun horiek ziurtatu ahal izateko ezinbesteko baldintza bat bete behar da: Babes Sistemaren eginkizun orokorrak, eginkizunen banaketa, sistemaren osatzaileetarako bakoitzak bere jardunean erabiliko dituen prozedurak eta informazioa trukatzeko prozedurak zehaztu behar dira.

4. ESPEZIALIZAZIO ETA ARDURA MAILA GORENEKO ERAKUNDEAREN BURUZAGITZA HAURRAK BABESTEKO SISTEMAN

Haurren Babesaren arloko eginkizunetan ari diren zerbitzu eta baliabide guztiek batera egiten duten lanean nahitaez erabili behar dira egitekoak banatzeko sistemak, koordinaziorako mekanismoak eta denen adostasunez sortutako lan-prozedura orokorrak. Horretarako, sisteman parte hartzen duten erakundeetarako baten batek buruzagi jardun behar du, sistemako partehartzaile guztiei lan egiteko ildoak eta arauak ezarri behar dizkie. Zentzuzkoa da haurren babesaren arloan prestakuntzarik eta espezializaziorik osoena duen erakundea izatea Haurrak Babesteko Sistemaren buruzagia. Halaber, erakunde horrexek hartu behar du bere gain haurrei eta euren familiei laguntzeko esku hartzen denean oinarrizko abiaburu jakin batzuk beteko direla bermatzeko lege-erantzukizuna.

Haurrak Babesteko Zerbitzu Espezializatuak, behar denean, herri zerbitzuek eta herritar guztiek esparru honetan dagozkien ardurak euren gain har ditzaten sustatu beharko dute. Gainera, zerbitzuen eta herritarren lankidetzak eta koordinazioa bideratu beharko dituzte, eta arauak eman beharko dituzte babes-

gabezia egoerak antzeman, jakinarazi, ebaluatu eta diagnostikatzeko eta horietan esku hartzeko prozesuetarako. Haurrak Babesteko Zerbitzuen jardueraren arrakasta, neurri handi batean, erkidegoak adingabekoei eta euren familiei eskaini ahal dizkien laguntza-baliabide formalen eta ez-formalen inplikazioaren pentzutan dago.

Seguruenik, herri administrazioetik kanpoko eragileekin zerbitzuak eta baliabideak hitzartu beharko dira Haurrentzako Planaren helburuetariko asko bete ahal izateko. Izan ere, esku hartzeko zerbitzu eta baliabideak (familien tratamendua, egotetxeetan eta familietan abegi egitea eta abar) administrazioaz kanpoko eragileekin hitzartzera jotzen da gaur egun; hitzarmen horien bitartez zerbitzuak arinago eman daitezke eta askotariko zerbitzuak eskaini daitezke. Hala ere, adingabekoei laguntza emateko eta eurak babesteko lege-erantzukizuna bere gain duen Erakundearen buruzagitzaren printzipioari eutsi egin behar zaio, printzipio horrek garrantzi handia duelako.

Beraz, esku hartzeko zerbitzuak eta baliabideak kanpoko erakundeekin hitzartzearen kontu horretan behar-beharrezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak berak ezartzea, mantentzea eta etenik gabe gainikustea egitarauen helburuak eta jardunbidea eta lanerako metodologia, eta bai lortu behar diren emaitzak ere. Era berean, Sailaren ardura izango da erabiltzaileei egiten zaizkien zerbitzuen kalitatea, lan-prozesuaren kalitatea eta lortzen diren emaitza zehatz eta orokorren kalitatea neurtzeko sistemak ezartzea.

5. HAURRAK FAMILI INGURUNE EGONKORRETAN SARTZEA, EDO, HORI EZINEZKOA DENEAN, ORDEZKO FAMILI INGURUNE EGONKORRETAN

Haurrak Babesteko Sistemaren xedea, azken buruan, babespean hartutako umeari bizitzeko ingurune egonkor eta segurua bilatzea da, bere oinarrizko beharrianak aseko dizkion ingurunea. Horrek, ume gehienentzat, familia batekin bizi izatea esan nahi du, ahal dela bere jatorrizko familiarekin, salbu eta hori argi eta garbi ezinezkoa denean edo haurarentzat komenigarria ez denean. Azken kasu horietan umeari ordezkoi famili ingurune egonkorra bilatu behar zaio, beraren familia zabalean bilatu ere, ahal den guztietan.

Ume bat aldi baterako bere familiarengandik banandu beharra dagoenean, Haurrak Babesteko Zerbitzuek bermatu egin behar dute adingabeko horri egoera berrian bere oinarrizko beharrianak aseko zaizkiola. Babes-ekintza guztien bitartez, jakina, babesik eza baino zerbait hobetagoa eskaini behar zaio haurrari, bestela hobe da ezer ez egitea.

Haurra familiarengandik banandu beharra dagoenean, etxetik kanpo egingo duen aldia ahalik laburrena izango da eta beharrezko bide guztiak ezarriko dira etxera lehenbailehen itzul dadin. Baina, aldi berean, bermaturik eduki behar dira adingabekoaren osotasuna eta ongizatea. Horregatik, nahitanahiez eduki behar dira familietan esku hartzeko baliabide eraginkorrak, arestian aipatu ditugun helburuak betetzeko adinakoak.

Haurrak Babesteko Zerbitzuen ahalegina haurra famili ingurune egonkor eta seguruan sartzera zuzendu behar da. Ahalik eta eperik laburrenean eduki behar da erabakita umearentzako behin betiko irtenbidea. Irtenbide hori hauetakoren bat izango da:

- Bere familian bertan integratzea.
- Bere familia zabalean integratzea.

- Beste familia batean integratzea.
- Emantzipazioa.

Umea familiarengandik behin betiko banantzen den aldietan, umeari helduekin bestelako lotura egonkorrak egiteko behar dituen bideak eman behar zaizkio, dela adopzioaren bidea, dela abegi iraunkorren bidea. Hamabi urtetik beherako umeek aparteko kasuetan bakarrik iraun behar dute luzaroan egotxeetan.

Umea famili ingurune egonkor batean behin betiko integratzerik lortzen ez denean (adinagatik edo portaera arazo bereziengatik, adibidea), Haurrak Babesteko Zerbitzuen bitartez, gurasoen eginkizunak betetzeaz gainera, adingabekoari prestakuntza eman behar zaio adin nagusitasunera heltzen denean helduen munduan behar bezala integratu ahal izan dadin (Emantzipaziorako prestakuntza).

Haurra bere familiarengana itzuli nahiz ez itzuli, baldin eta jatorrizko familia horrekin lotura afektiboak baditu lotura horiek betiko gorde behar ditu, salbu eta bere interesen eta ongizatearen kalterako direnean. Haurrak Babesteko Zerbitzuen eskuhartzearen bidez lotura horien iraupenaren eta umearen babesaren arteko oreka lortu behar da. Lotura afektiboak aipatzen ditugunean, umeak gurasoekin eta gainerrako senide helduekin dituen loturez gainera neba-arreben arteko loturez ere ari gara. Horregatik, kaltegarria den kasuetan izan ezik, bananketaren ostean neba-arrebek elkarrekin iraun behar dute edo ahalik eta harreman gehien izan behar dituzte.

6. ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUAK EGOKITZEKO ETA HAURREN GURASOEN PROZESU HORIETAN PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK

Haurrak Babesteko Zerbitzuetan erabakiak hartzen direnean haurren eta euren familien oraingo eta geroko bitzita aldarazten da, sarri askotan modu erabakigarrian aldatu ere. Horregatik, okerreko erabakirik hartu ez dadin alde aurretik neurriak jartzea Haurrak Babesteko Zerbitzuen eginbehar nagusietariko da. Hona hemen neurri horiek:

- Haurrari edota beraren familiari laguntzeko egingo den eskuhartzeari buruz edozein erabaki hartu aurretik euren egoeraren ebaluazio berezia, osoa eta eguneratua egin behar da.
- Prozesu horretan taldeko eta disziplinar-teko lanaren ereduari jarraitu behar zaio. Erabakiak hartzea inoiz ere ez da izango profesional bakar baten ardura.
- Haurrak Babesteko Zerbitzuek irizpide homogeneousak eta egokiak erabili behar dituzte, jar daitezkeen neurri eta baliabide-erako bakoitza zein kasutan eta zein egoeratan aplikatu behar duten zuzen erabaki ahal izateko.
- Adingabeko eta familia bakoitzarentzat egiten den Eskuhartze Plana aldian-aldian berrikusi egingo dela bermatu behar da.
- Haurrak Babesteko Zerbitzuetako profesionalek prestakuntza espezializatua eta eguneratua eduki behar dute haurren babesaren eremuan lan egiteko, haurren alde esku hartzeko eta haurrei tratu txarrak ematen dizkieten edota axola gabe erabiltzen dituzten familietan esku hartzeko.

Beste alde batetik, Haurrak Babesteko Zerbitzuek ahaleginak egin behar dituzte babespean hartzen duten haurren familiak eta haurrak berak ahalik eta partehartze handiena izan dezaten eskuhartze pro-

zesuaren urratsetan eta erabakiak hartzeko orduan. Haurraren gurasoak lankide izatea eta babes prozesuan beraiekin formazko akordioak lortzea funtsezko faktoreak dira eskuhartzea arrakastatsua izan dadin. Haurrei dagokienez, berriz, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie beti, eta kontuan hartu behar da zenbateraino dauden heldurik eta garaturik. Ahal dela, haurren nahiak beteko dira. Adingabekoak bere iritzia azaltzeko eskubidea dauka administrazio-prozeduretan eta auzibideetan, bera dena-delako arazoan zuzenean nahasturik badago edo prozeduraren azkenean beraren bizitza pertsonala, famili bizitza nahiz gizarte bizitza ukituko duen erabakiren bat hartuko bada.

7. EZINBESTEAN FAMILIARENGANDIK BANANDU ETA EGOTETXE BATERA ERAMAN BEHAR DIREN ADINGABEKOAK BABESTEKO ETA HAIEN BEHARRIZAN BEREZIAK ASETZEKO BERMEA.

Adingabekoei egotetxeetan abegi egiteko zentruak eta etxeak umeei babes osoa ematea eta oinarriko beharrizanak asetzea bermatzeko beharrezkoak diren baldintza guztiak bete behar dituzte. Beharrian materialez gainera, umeen beharrian emozionalak, kognitiboak eta sozialak ere bete behar dira. Adingabekoen kopurua zentru bakoitzeko, adingabekoen “ratioa” hezitzaile bakoitzeko, egotetxe barruko ingurunearen kalitatea, haurren beharrianak betetzeko baliabide bereziak izatea, besteak beste, gutxieneko beharkizunak dira, herri erakundeen zaintzapean edo tutoretzapean bizi diren adingabekoek euren oinarriko behar fisiko, emozional, kognitibo eta sozialak beterik izango dituztela uneoro bermatu behar duen babes sistema batean.

Adingabekoei abegi egiteko zentruetan/etxeetan portaera arazo larriak dituzten adingabekoak izatea oso kontuan hartu beharreko arazoa da eta lehenetsunez aztertu behar da. Izan ere, adingabeko bat babesik gabe aurkitzen delako familiarengandik banantzen dugunean, bermatu egin behar dugu ume horrek aldi baterako bizileku izango duen zentruan/etxean ez duela gehiago gatazkarik izango, ezta bertako helduengandik nahiz haurrengandik tratatu txarrak hartzeko arriskurik ere.

8. ZERBITZUAREN ERAGINKORTASUNA ETA KALITATEA HOBETZEKO BIDEAK ETENGABE BILATZEA

Haurrak Babesteko Zerbitzuetako arduradunek eta profesionalak euren lanaren eraginkortasuna eta euren zerbitzuen kalitatea areagotzera jo behar dute etengabe. Horretarako, norberaren iritziaz gainera, zerbitzuaren erabiltzaileen iritzia (gurasoak eta adingabekoak), herri zerbitzuena eta herritar guztiena ere hartu behar dira kontuan.

Jokaera horren ildotik, (a) zerbitzuetako arduradun eta profesionalen eta erabiltzaileen arteko komunikaziorako bideak zabaldu behar dira (b) adingabekoen beharrianak egokiro betetzea ahalbideratuko duten baliabide, prozedura eta bitarteko berriak bilatu eta garatu behar dira, eta (c) Zerbitzuek prestakuntza espezializatua duten profesionalak osatutako plantilak eduki behar dituzte.

Bide horretan, funtsezkotzat jotzen da Haurrak Babesteko Sistemaren Etengabeko Ebaluaziorako sistema eta prozedura ezartzea. Sistema horretan aurretiaz jarriko dira Bizkaiko Haurren Babesaren helburuak, oro har, zenbateraino betetzen diren neurtzeko erabiliko diren adierazkariak. Gainera, Haurrentzako Zerbitzuaren egitarau eta jarduketan estaldura, prozesua eta emaitzak ebaluatzeko sistema egokiak ezarri behar dira, bai zerbitzuak berak burutzen dituen egitarau eta jarduketetarako eta bai hitzarmenen bidez burutzen diren horietarako. Ebaluaziotik aterako diren datuak erabilia aurrera egin ahal izango da erabiltzaileei egiten zaizkien zerbitzuen etengabeko hobekuntzan eta, bide batez, profesionalak eta Sistemak berak motibazio indartsuagoa izango dute euren helburuak betetzeko.

Zerbitzu oinarrizkoen eta espezializatuen eskumenak eta jardunbidea. Haurrentzako planaren aurrekariak

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Haurrentzako Zerbitzuak zaindu behar dituzten kasu motak

Haurren babesgabezia kasuak² ezin dira multzo homogeenan sailkatu, haurren integritate fisiko eta psikologikoaren arloetan duten garrantziaren arabera larritasun maila desberdinak dituztelako, eta, aldi berean, eragiten dituzten faktoreak maila askotakoak direlako eta babesgabezia egoera mantentzen dutelako. Horrek esan nahi du kasu honetan esku hartzeko beharrezkoak diren baliabideak ere era askotakoak izan behar dutela espezializazio eta intentsitate maila dagokienean.

Bizkaiko Gizarte Zerbitzuek gaur egun duten antolakuntzan onartu egiten da larritasun gutxien duten haurren arrisku eta babesgabezia goerak daudenean, baldin eta konplexuegiak ez badira eta ez badute eskuhartze espezializaturik eskatzen, Zerbitzu Oinarrizkoen ardurak izatea; ordea, larritasun eta konplexutasun handiagoa duten haurren babesgabezia kasuetan, eskuhartze espezializatua behar denean, edo adingabekoa aldi baterako edo behin betiko bere familiarren ingurutik bereiztu beharra dagoenean, horrelakoetan Zerbitzu Espezializatuak jardun behar dute. Haurrentzako Plan honen abiaburu nagusia hori da eta Haurren Babesaren esparruan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Zerbitzu espezializatuen eskumenean banaketa honetan finkatzen da:

a) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak:

- Oinarrizko aurrearreta egitarauak eta jarduketak burutzea, familien eta adingabekoen kalitate orokorra hobetzeko izaten direnak, eta baita haurren babesgabeziari lotuta dauden edota hori agertzea errazten duten faktoreen agerpena ekiditeko (adibidez, gizarte bereizkeria, haurren eskubideak, zigor fisikoarekiko jarrera).

² Haurren babesgabezia eragin dezakete egoerak:

- a) **Gurasoek/tutoreek aldi baterako edo behin betiko ezin babestu izatea**, hil egin direlako, espetxeratu egin dituztelako, gaixotasun fisiko edo mentalagatik, edo gaitasuna kentzen duen toxikozaletasunagatik edo antzeko zioengatik.
- b) **Gurasoek/tutoreek babestu beharra ez betetzea**: amatasun/aitatasunari uko egitea edo hori ez aintzatestea; umea erabat bertan behera uztea edo antzeko egoerak.
- c) **Guraso/tutoreek (egiteagatik ez ez-egiteagatik) babesteko betebeharrak era ez-egokian betetzea**: tratu txar fisikoak, bertan behera uzte fisiko, tratu txar psikologiko/emozionala, bertan behera uzte psikologiko/emozionala, gehiegi-keri sexuala, ustelkeria (esplotazio sexuala edo delinkuentziara bultzatzea), guraso-eredu asozialen bidezko ustelkeria, lan-esplotazioa, jairo aurreko tratu txarrak, bestelakoak.

- Ezaugarri jakin batzuk dituzten familientzako bigarren aurrearreta mailako egitarau zehatzak burutzea (“arrisku faktoreak”), hau da, etorkizunean, hurbilekoan zein urrunekoan, haurren babesgabezia egoera sortuko dela aurreikusteko aukera ematen dutenak (adibidez, haurdun dauden eta laguntzarik ez duten ama nerabeak, trebezia gutxi edo baliabide pertsonal eskasak dituzten guraso bakarreko familiak). Oraindik babesgabezia egoeran erori ez diren familiak dira. Egitarau horien xedea “arrisku faktore” horien eragina ezabatzea edo gutxitzea da, eta, aldi berean, familiaren inguruan “babeserako faktoreak” sendotzea, babesgabezia egoera horiek agertzea ekidindo dutenak.
- Larritasun gutxi edo larritasun ertaina duten haurren babesgabezia egoeretan eskuhartzerakoan, Erkidegoaren bitartekoen eta administrazioaren beste maila batzuen eskuhartzean inplikazioa eta koordinazioa sustatzea³.
- Familiar esku hartzeko egitarauak sustatzea, haurraren babesgabezia egoera horrek gehiagora egitea ekiditeko eta adingabekoa familiaren ingurutik bereiztea ekiditeko; ondoko hauek hartzen dira kontuan:
 - * larritasun ertain edo handiko haur babesgabezia arazoak egotea,
 - * ezinezkoa izatea erkidegoan dauden zerbitzu formal eta ez-formalen jarduketa hutsarekin konpontzea eta familiaren egoitzan bertan kontrol, irakaskuntza eta laguntza zehatzen bidezko esku hartu beharra egotea,
 - * egoitzan bertan egiten den eskuhartze hori zuzkitzen bada haurrak familiaren egoitzan jarrai dezakeela, bere integritatea eta oinarrizko segurtasuna eta garatze-prozesu egokia bermatuta daudelako, eta
 - * haurraren guraso/tutore/zaintzaileek zerbitzu horiekin lankidetzat maila onean jardutea.

b) Zerbitzu Espezializatuen eskumenak:

- Haurraren jatorrizko familiaren alternatiboak izango diren aldi baterako eta behin betiko abegi zerbitzuak sustatzea (abegia egoitza batean egitea, familia batean, adopzioan), larritasun nabarmen edo altua⁴ duten haurren babesgabezia egoerak daudenean eta baldin eta zaintza burutu behar bada edota adingabekoaren tutoretza hartu.
- Familiar esku hartzeko egitarauak egitea, ondoko hauek eskuratzeko (a) adingabekoa familiaren ingurutik ez bereizteko, edo (b) ahalik eta arinen itzultzea eragitea aldi baterako bereizketa izan denean; horrelakoetan familietan ondoko hauek hartuko dira kontuan:
 - * larritasun ertain edo handiko haur babesgabezia arazoak egotea,
 - * erkidegoan eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan dauden zerbitzuen sarearen bidez ekiteko aukerarik ez egotea,

³ **Larritasun arin eta moderatuko haurren babesgabezia egoeratzat jotzen dira ondoko hauek:** (a) haurrari inolako kalterik egiten ez diotenak, ez fisikorik, ez psikologiko, kognitibo edota sozialik, eta kalte txikia egiten diotenak; (b) adierazi diren maila horiek gainditzen dituzten kalteak egin arren, umearen garapena kolokan jartzen ez dutenak eta berehalako tratamendu espezializaturik beharrezko egiten ez dutenak.

⁴ **Larritasun handiko** haurren babesgabezia egoeratzat jotzen dira haurraren kalte nabarmen eta adierazgarriak eragin dituztenak, maila fisikoan, psikologikoan, kognitiboan edota sozialean eta, horren ondorioz, umearen garapena benetan kolokan dago eta berehala tratamendu espezializaturik behar da.

- * beharrezkoa izatea haurra aldi baterako familiarengandik bereiztea, horren integritatea edo oinarrizko segurtasuna arriskuan daudelako eta bere garapena benetan ukituta dagoelako, edo
- * baldin eta familian jasotzen dituen tratuan eta zaintzen mailan benetako aldaketarik gertatzen ez bada epe motz edo ertainera haurra familiaren gunetik bereiztu beharra egoteko probabilitateak asko izatea, eta guraso/tutore/zaintzaileek zerbitzuekin lankidetzan aritzeko jarrerarik adierazten ez dutenean, edo beharrezko konpromisoak betetzeko segurtasunik ez dagoenean.
- Familian esku hartzeko egitarau zehatzak sustatzea familia barruko gehiegikeri sexualen kasuetarako.

Sarritan Haurrak Babesteko Zerbitzuek, horietan ezezik, beste egoera batzuetan ere esku hartu behar dute, nahiz eta horiek administrazioaren beste zerbitzu batzuen ardura izan eta ez babesteko zerbitzuenak. Egoera horietan, beste zerbitzu batzuen eskumenekoak diren arazo jakin batzuk konpontzeke egoteagatik (adibidez, etxebizitza, enplegua, buruko osasuna), batzuetan haurren babesgabezia egoera eragiten da, edo behintzat eragiteko aukerak izaten dira. Argi adierazi eta ezarri behar da egoera horiek ezin direla Haurren Babeserako Zerbitzuaren erantzukizuna izan eta bidezko organismo eta zerbitzuen eskuhartzea sustatu behar dela. Egoera horien adibide batzuk hauek izan daitezke:

- * Jarrera edo emozioen arloan arazoak dituzten adingabeak, guraso/tutore/zaintzaileengandik tratu egokia jasotzen dutenak.
- * Eskola absentismoa.
- * Minusbalia fisikoak. psikikoak edo sentsorialak dituzten adingabeak.
- * Arazo ekonomikoak dituzten familiak.
- * Bizitzeko baldintza eskasak dituzten familiak.
- * Etxebizitzarekin arazoak dituzten familiak.
- * Guraso eta seme-alaben arteko belaunaldien arteko gatazkak, baina tratu txar edo bertan behera uzte egoerarik gabe.
- * Ezkontideen gatazka/bereizketa egoerak bizi dituzten adingabeak.

Hori gora-behera, baldin eta arazo horiek ez konpontzeak haurren babesa arriskuan geratzea gertatzen bada, Haurren Babeserako Zerbitzuek esku hartuko dute egoera hori lehengoratzeko eta, beharrezkoa bada, haurra babesteko. Horrelako kasuetan Haurren Babeserako Zerbitzuen eskuhartzea sorospidetzazko eskuhartzea izango da.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Haurrentzako Zerbitzuak hauren babesgabezia kasuen ikerketa/ebaluazioan dituzten eskumenak

Hauren babesgabezia kasuak ikertzea/ebaluaraztea batez ere Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen lana da, zerbitzu horiek direlako Hauren Babes Sistemaren sartzeko bidea. Zerbitzuek gaur egun duten antolamenduan uste da haur bat babesgabezia egoeran dagoela edo horrelako egoera bat gertatzen ari dela ezagutzen edo susmatzen duen edonork Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara joko duela horren berri emateko, eta zerbitzu horien lana izango da (a) babesgabezia hori benetan gertatzen ari den baieztatzea, (b) horren larritasuna ezartzea, hau da, haurrari eragin dion kaltea edo eragin diezaiokeena, (c) egoera horren jatorria izan diren arrazoiak edo faktoreak identifikatzea, (d) kasuaren pronostikoa egingo dute egoera lehengoratzeko dauden aukerei dagokienean, eta (e) familia eta haurrak behar dituzten bitartekoak eta eskuhartzeak neurtuko dituzte. Horretarako, bada, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek kasu bakoitzari buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko azterlan norbanakotua eta sakona burutzen dute, eta horri Ikerketa/Ebaluazioa deritzo.

Horretarako, **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek** beharrezko giza baliabideak eta bitarteko teknikoak eduki behar dituzte, hauek egiteko (a) norbanako, profesional edo bere eskumeneko lurralde esparrutik heldu zaizkion ustezko haur babesgabezia egoerei buruzko oharrazpen guztien jasoketa zentralizatzea, eta (b) kasu horien guztien Ikerketa/Ebaluazioa egitea, salbu eta presazko babes neurriak hartzea behar denean baloratzen denean, horrelakoetan berehala Zerbitzu Espezializatuetara igorriko delako.

Zerbitzu Espezializatuen lana da Ikerketa/Ebaluazioa egitea oso larriak diren hauren babesgabezia egoerak daudenean (a) hala Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik heldu direnak nola beste iturri batzuetatik, baldin eta horietan presazko babes neurriak hartu behar direla erabaki bada, eta (b) Fiskaltza/Auzitegietatik etorri direnak, Ikerketa/Ebaluazioa egiteko edo kasuan esku hartzen hasteko aginduarekin.

Presazko babes neurriak hartu behar diren ala ez baloratzea haurra pairatzen ari den edota babesgabezia egoera horregatik paira dezakeen kaltearen larritasunaren ebaluazioaren arabera gertatuko da ; oro har ondoko hauek izaten dira ardatzak:

- gurasoen jarreraren larritasuna, batez ere intentsitatea, maiztasuna eta iraupenean neurtzen direnak.
- Babesgabeziak haurraren maila fisikoan, kognitiboan, psikologikoan edota sozialean eragin dituen edo eragin ditzakeen ondorioak.
- Haurrak egoera horretatik babesteko edo ihes egiteko duen gaitasuna, hau da , bere burua defendatzeko duen gaitasuna (autodefentsa, autonomia, kanpoko bati laguntza eskatzea).

Haurraren egoerari buruz ezagutzen denak bere osasuna edota oinarrizko segurtasuna arrisku larrian daudela edo egon daitekeela adierazten duenean, eta ez badago hori ukatzen duten beste iturri batzuetako daturik, Ikerketa/Ebaluazioa Zerbitzu Espezializatuen erantzukizuna izango da.

Adierazi diren kasu horietan Ikerketa/Ebaluazioa egiteko Haurrentzako Zerbitzuak giza baliabide eta bitarteko tekniko egokiak izan beharko ditu, Ikerketa/Ebaluazioa berehala hasteko eta gero denbora mugatu baten osatzeko ahalmena eta gaitasuna izango dutenak.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Haurrentzako Zerbitzuak familien alde esku hartzeko egin dituzten egitarauetarako behar diren bitartekoak

Adingabekoa bere familiatik bereiztea ekiditeko eta, ahal den kasuetan, familia berriz biltzea sustatzeko, derrigorrezkoa da sortuko diren arazo guztiei aurre egiteko beharrezko bitartekoak edukitzea, eta bitarteko horiek babesgabezia egoeraren arrazoiak izan diren edo hori eragiten egon daitezkeen norbanako, famili eta gizarte arazoei aurre egiteko modukoak izan beharko dute. Beste alde batetik, haurren babesgabezia egoera hauek pairatzen dituzten familien arteko arazoaren konplexutasuna eta larritasuna era askotakoa izaten da. Gaur egun arlo honetan eskuratu diren ezagutzen arabera, frogatuta dago lotuta daudela haurren babesgabeziaren larritasuna eta arazo elkartuen larritasuna, eta horrek esan nahi du kasu larrienei jaramon egiteko hain larriak ez diren kasuetan erabiltzen diren bitartekoak baino espezializatuagoak eta intentsiboagoak behar direla familia horietan esku hartzeko. Horregatik, bada, arrisku edo babesgabezia arinak dituzten familientzako antolatu diren esku hartzeko egitarauen diseinua mugatuagoa da helburu, bitarteko mota eta tratamenduaren iraupenari dagokionean, eta, ordea, babesgabezia arazo larriak dituzten familietan egiten direnak beste diseinu sakonagoa dute. Halaber, esan behar da lehen motako egitarau horietan lan egiten duten profesionalen prestakuntza eta espezializazio maila, jakina, bigarren maila horretan behar dena baino xeheagoa dela.

A) OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEK HAURREN BABESGABEZIA ARINA ETA MODERATUA DEN KASUETAN FAMILIAN ESKU HARTZEKO BEHAR DITUZTEN EGITARAUAK ETA ESKURA IZAN BEHAR DITUZTEN GUTXIENENKO BALIABIDEAK:

Familia baturik mantentzeko egitarauak:

Egitarau hauen helbururik behinenak hauek dira (a) gurasoak gai izan daitezela seme-alabak ondo zaintzeko eta jagoteko, eta (b) haurrek maila fisikoan, afektiboan, kognitiboan eta sozialean garapen osasuntsu eta normalizatuak izan dezatela. Egitarau hauen azken helburua, nagusia, babesgabezia egoera hori ez larritzea da eta, ondorioz, etorkizunean haurra bere familiaren ingurutik eta bere berezko gizarte esparrutik bereiztu beharra ekiditea.

Egitarau hauek izan behar dituzten diseinu, ezaugarri eta gutxieneko bitartekoak bigarren eranskinen deskribatu dira xeheago.

B) ZERBITZU ESPEZIALIZATUEK HAURREN BABESGABEZIA MODERATUA ETA HANDIA DEN KASUETAN FAMILIAN ESKU HARTZEKO BEHAR DITUZTEN EGITARAUAK ETA ESKURA IZAN BEHAR DITUZTEN GUTXIENENKO BALIABIDEAK:

Zerbitzu espezializatuek haurren babesgabezia ertain eta larriak dauden kasuei jaramon zuzena egiteko bi bitarteko mota izan behar dituzte:

- Aldi baterako edota behin betiko familiaren ingurutik edota jatorrizko gizarte esparrutik bereiztu behar izan dituzten **haurrei laguntza eta tratamendua emateko bitarteko zehatzak**, babesgabezia egoera horrek sortzen dituen eragin negatiboak gainditzeko balioko dutenak alegia, eta garapen prozesu egokia burutzeko beharrezkoak diren bitarteko pertsonalak zuzkitzea.
- Haurren babesgabezia egoera ertainak edo larriak pairatzen dituzten **familietan laguntzeko eta esku hartzeko bitartekoak**, babesgabezia egoera hori desagertarazteko eta, oinarrizko beharri-

zanak estalita izango dituztela bermatu ondoren, haurrek jatorrizko familien eta gizarte esparruen barruan bizitzea lortzeko.

Bigarren Eranskinean zehatzago deskribatu dira **Zerbitzu Espezializatu**en pentzutan egon behar duten Familian esku hartzeko Egitarauak izan behar dituzten diseinua, ezaugarriak eta gutxieneko baliabideak. Egitarau horiek hiru motakoak izango dira:

1. *Familia baturik mantentzeko eta berriz batzeko egitarauak:*

Ondoko hauek eskuratzeko (a) gurasoak gai izan daitezela seme-alabak ondo zaintzeko eta jago-teko, eta (b) haurrek maila fisikoan, afektiboan, kognitiboan eta sozialean garapen osasuntsu eta normalizatu izan dezatela lortzea. Egitarau hauen azken helburuak hauek dira (a) babesgabezia kasu larrietan haurra familiatik bereiztea ekiditea, eta (b) babesa bermatzeko beharrezkoa izan denean aldi baterako haurra familiarengandik bereiztea, haur horien itzulera sustatzea. Egitarau horiek haurren babesgabezia tipologia guztietan esku hartzeko balioko dute, salbu eta familiaren barruko sexu gehiegikerien kasuetan (horrelakoetan egitarau zehatzak egongo direlako).

2. *Gurasoei laguntzeko egitarau iraunkorrak eta horientzako egitarau osagarriak:*

Egitarau hauetan beharrezkoa da bi baldintza betetzea, hau da, lehenengo eta behin gurasoek gai izan behar dute seme-alaben zaintzako erantzukizun jakin batzuk era egokian betetzeko eta, bigarrena, gurasoen eta seme-alaben arteko lotura afektibo sendoa behar da; beraz, horiek betetzen direnean baina gurasoek muga kronikoak eta konpon ezinak izaten dituztenean (adibidez, munusbalia psikiko arina, buruko arazo kronikoak) eta horientzako ez dira gai seme-alaben oinarrizko beharrezkoak batzuei aurre egiteko. Horrelako kasuetan diagnostiko argia izaten da, ezin dela inoiz lortu gurasoek era egokian eta autonomoan erantzukizun batzuei aurre egitea, baina elkarbizitza eta familiaren barruko loturak mantentzea funtsezkoa da haurraren ongizatea eta garapena lortzeko, eta gurasoek profesionalen laguntza onartu behar dute. Horrelako kasuetan nahitaezkoa da familiaren egoitzan beste pertsona heldu batzuen presentzia haurrek beharrezkoak diren oinarrizko zaintzak jasotzen dituztela bermatzeko eta horien integritatea eta oinarrizko segurtasuna bermatuta daudela erakusteko. Egitarau horiek haurren babesgabezia kasu guztietan esku hartzeko balioko dute, salbu eta familiaren barruan gertatzen diren sexu gehiegikerien kasuetan.

Egitarau hau epe luzean jarduteko dira eta kasu batzuetan beharrezkoa dira hari eta haurren autonomia heldu arte. Hori guztia gora-behera, haurraren segurtasuna era egonkorrean bermatu den nean bertan, kasu horretan egiten den esku hartze hori **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen** eskuetan utz daiteke, jarraipena horiek egin dezaten

3. *Familiaren barruko sexu gehiegikeriak tratatzeko egitarauak:*

Egitarau honen funtsezko helburua familiaren barruan sexu gehiegikeriak gertatzeagatik **Zerbitzu Espezializatu**ek, babesteko neurri moduan, haurra aldi baterako familiaren egoitzatik bereiztea erabaki duten kasuetan familia berriz biltzea da, jakina, beti ere, lkerketa/Ebaluazioa egin ondoren zerbitzu horiek berriz biltzeko prozesuan ahaleginak egitea egokia dela erabaki badute, eta eragiketa horretan erruduna barruan zein kanpoan gera daiteke. Egitarau honen azken xedeak gehiegikeri horiek bukatuko direla bermatzea da, haurrari egoera horren eragin negatiboak gainditzen laguntzea eta gurasoak babesteko figura bihurtzea.

Gizartekintza Saileko Haurrentzako Zerbitzuaren eta GUFEn arteko koordinazio eraginkorra antolatzea

Bizkaiko Lurralde Historikoan Haurren Babeserako Sistemaren jardunbidea hobetzeko nahitaezkoak dira Gizartekintza Saileko Haurrentzako Zerbitzuaren eta GUFEn arteko koordinazioa eta praktikan bi erakundeok izaki bakarra bezala jardutea lortzea; halaber, hori guztia beharrezkoa da babesten diren adingabekoei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea lortzeko. Horretarako beharrezkoa da funtzioak banatzerakoan koordinazio eta antolakuntza egokia bideratuko duten ekintzekin hastea.

Prozesu horrek GUFeko Laguntza Teknikoaren Zerbitzua (LTZ-SAT) eta Gizartekintzako Haurrentzako Zerbitzuaren arteko koordinazioa hobetzea sustatu behar du, batez ere egoitza/etxe, adingabeko eta horien familien arloetan egiten diren lanen gainkuskapen eta kudeaketan eta hori abiaburu, irizpide eta prozedura bateratuekin egin behar da. Aldi berean egoitza eta etxeen sare osoa bateratu behar da, sare horretan egin behar diren aldarazpen eta berregituraketak multzo osoa kontuan hartuta eta ikuspegi bakarrarekin egin daitezten. Halaber, nahitaezkoa da Haurrentzako Zerbitzua eta GUFEn erantzukizuna diren egoitza/etxeen arteko erlazio sistema zehaztea, horrela, LTZ-SATEkin lankidetzan, adingabekoekin eta horien familiekin egoitza/etxeetan egiten den eskuhartze teknikoak zuzentzeko, gainikusteko eta koordinatzeko.

Abiaburu horretatik aurrera, Planean **Haurrentzako Zerbitzua** esaten den bakoitzean horren antolakuntza berria burutzen denean aurreikusi dena adierazi nahi da, hau da, ondoko hauekin, (1) Harrera, Balorazio eta Adopziorako Unitate/Atala, (2) Familietan Abegi Egiteko eta Adopziorako Unitate/Atala eta (3) Egotetxeetan Abegi Egiteko Unitate/Atala.

Haurrentzako plana

Haurrentzako Plan honetan ezarri diren jarduketetan zazpi egitarau daude. Horiatariko batzuetan, aldi berean, azpiegitarauak daude. Aurreikuspenen arabera horiatariko bakoitzaren burutzapenak Haurren Babeserako Sistemaren atal bat era adierazgarrian hobetzen eta egokitzen lagunduko du. Egitarau bakoitzaren barruan sartu diren jarduera horien betearaztea, neurri batean behintzat, lokabea da bestee-kiko eta arlo jakin horretan lortu den burutzapena era bereiztu eta lokabean neurtu daiteke. Baina, hori gora-behera, Haurren Babeserako Sistemaren jardunbide eta eraginkortasunean benetako hobekuntza lortzeko nahitaezkoa da egitarau eta azpiegitarau guztiak betetzea eta burutzapen hori era koordinatuan egitea (ikusi sekuntziazio proposamena).

Egitarauak, jarduketak eta ebaluaziorako adierazariak

1. Egitaraua: Haurrentzako zerbitzua jasotzen duten adingabekoen beharrianen azterketa

Helburuak:

1. Datu koantitatiboan bidez Haurrentzako Zerbitzuan espedientea hasita duten haur guztiak duten eskuhartze/babes beharrian zehatzak zeintzuk diren berrikustea eta eguneratzea, datu horiek zerbitzu eta bitartekoen plangintza egiteko oinarria izan dadin.
2. Babesteko espedientea hasita duen adingabeko bakoitzari bere beharrianen arabera jasoko duen esku hartzeko aukerari buruzko orientazioa ematea (famiaren egoitzan bertan edo kanpoan).
3. Haurrentzako Zerbitzuaren ikuskapena edo gainikuskapena eskatzen ez duten espediente guztiak ixtea.

Jarduerak:

1. Babesteko espedientea hasita duten adingabekoen kasuetan esku hartzeko/babesteko beharrianak identifikatzeko protokoloa egitea (adina, babesaren iraupena, neba-arreben egoera, familiak duen arazo mota, adingabekoak duen arazo mota, familia birgaitzeko pronostikoa, etab.). Protokoloa Haurrentzako Zerbitzuko profesionalak egingo dute eta, beharrezkoa bada, kanpoko talde baten laguntza izango du.

2. Haurrentzako Zerbitzuan dauden espediente guztiak eguneratzea, horretarako aurrez gertutuko den protokoloan ezarri dena betez. Kasuarekin zerikusia duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzueta-ko, egotetxeetako, beste zerbitzu profesional batzuetako informazioa bilduko da eta, beharrezkoa bada, adingabeak edo/eta familiak emango duena.
3. Espediente bakoitzaren azterlan eta diagnostiko banakatua, eta adingabe bakoitzaren behar-rrizari ondoen egokituko zaion eskuhartzera orientatzea (tutela edo zaintza neurria baloratzea; familiaren egoitzan mantentzea edo horretara itzultzea; epe laburrerako edo luzerako egotetxean hartzea; aldi baterako, era iraunkorrean edo adopzio-aurreko araubidean familia baten abegi egitea). Funtzio hau Haurrentzako Zerbitzuko profesionalek egingo dute.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Eguneratu diren espedienteen portzentaia.
2. Diagnostiko eta orientazio zehatza eta Esku Hartzeko Plan eguneratua duten espedienteen portzentaia.
3. Haurrentzako Zerbitzuan prozesu honen bidez itxi diren espedienteen kopurua.

2. Egitaraua: Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren baliabideen jardunaren berrantolaketa eta hobekuntza

2A AZPIEGITARAUA: HAURRENTZAKO AZPIEGITARAUA. HAURRENTZAKO ZERBITZUAREN ETA G.U.F.E.REN ARTEKO KOORDINAZIOA

Helburuak:

1. Gizartekintza Saileko Haurrentzako Zerbitzuak eta G.U.F.E.k adingabekoei egotetxeetan abegi egiteko koordinarutik eta koherentziarekin jardutea lortzea.

Jarduerak:

1. Gizartekintza Saileko eta G.U.F.E.ko arduradun politiko egokien arteko bilerak prestatzea, plan honetan Haurrentzako Zerbitzuaren eta G.U.F.E.aren arteko koordinatzeko onetsi diren gidalerroak betearazteko behar diren ekintzak abiarazteko. Arduradun teknikoen batzordea sortuko da jarduteko proposamen zehatzak gertutzeko.
2. Arduradun teknikoen batzordeak, arduradun politikoei emandako gidalerroei jarraituz, helburuak lortzeko behar diren lan-bilera guztiak egingo ditu eta Haurrentzako Zerbitzuaren eta G.U.F.E.aren arteko koordinazioa hobetzeko behar diren neurriak diseinatuko dituzte. Batzordearen helburu zehatzak ondoko hauek izango dira:
 - Bi zerbitzuen egitura hierarkikoa eta antolamendua koordinaturik lan egiteko eredu batera moldatzea.
 - Adingabekoei egotetxeetan abegi egitean, zerbitzu bakoitzaren eginkizunak eta ardurak eta biek batera dituztenak definitzea.

- G.U.F.E.aren Laguntza Teknikoaren Zerbitzuari egotetxeetan babestu beharreko adingabekoe-kin eta beraien senideekin aritzeko eta esku hartzeko lanak zuzentzeko eta gainikusteko esku-
menak ematea.

Batzorde honen ardurapeko gai batzuetan Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Saileko tekni-
kari arduradunekin kontsultatu beharko da.

3. G.U.F.E.aren Laguntza Teknikoaren Zerbitzua Foru Erakundearen beraren Egotetxean Abegi
Egiteko Atal bihurtzea; atal horrek egotetxean abegi egiteko zerbitzua emango du Bizkaiko
Lurralde Historikoko egotetxe-sare osoan. Atalaren eginkizun nagusiak ondoko hauek izango
dira:
 - Adigabekoeekin egotetxeetan eta etxeetan egiten diren eskuhartze guztiak zuzendu, gainikusi
eta koordinatu.
 - Adigabekoak Baloratzeko Batzorde Teknikoari egotetxean abegi emandako adingabekoeekin
zer egin proposatu.
 - Kasu Koordinazioa⁵ abiarazi egotetxean abegi egiten denean. Esku Hartzeko Plana betearaz-
tea, etengabe ebaluatzea, eta behar diren gauzak aldatzea. Horren barruan adingabeko bat
edo gehiago egotetxean abegi eginda dauden familietan esku nola hartzen den gainikustea
dago.
 - Esku Hartzeko Planean beharrezkotzat jotzen diren gauzak aldarazi.
4. Elkartruke eta koordinaziorako gertagune iraunkorra sortzea; bertan Gizartekintza Saileko hiru
atalburuek eta GUFekoak parte hartuko dute: (a) Harrera, Balorazioa eta Orientazioa, (b) Fami-
li Abegia eta Adopzioa, eta (c) Egotetxeko Abegia.
5. Prozedura Eskuliburu sortzea, oinarrizko abiaburuak, irizpidea eta jarduteko prozedurak defini-
tzeko, eta bi zerbitzuak (Haurrentzako Zerbitzua eta GUF) eta hiru atalak egotetxean abegi egi-
teko arloan koordinatzeko protokoloak eta tresnak eskuratzeko. Eskuliburu hori Haurrentzako
Zerbitzuak egingo du, hiru ataletako arduradunek eta teknikariek lagundurik⁶.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Egotetxean Abegi Egiteko Atala sortzea.
2. Idazki batean Haurrentzako Zerbitzuak, Egotetxean Abegi Egiteko Atalak eta abegi zentruak
adingabekoen eta beraien familiekin esku hartzeko dituzten eginkizunak eta erantzukizunak
zehaztea.
3. Prozedura Eskuliburuaren ezarpenaren gradua, bai eta koordinazioa hobetzeko tresna eta pro-
tokoloen ezarpenarena ere.

⁵ Kasu Koordinazioaren egikizunak eta zereginak Prozedura Eskuliburuan definitu beharko dira.

⁶ Prozedura Eskuliburuaren edukiari buruzko proposamena zehatza ageri da bigarren eranskinan.

2B AZPIEGITARAUA. EGOTETXEEN SAREAREN KUDEAKETA ETA GAINBEGIRAKETA ERDIRATZEA

* 2b azpiegitaraua ez da abiaraziko harik eta 2a azpiegitarauko jarduera guztiak erabat burutu arte.

Helburuak:

1. Egotetxeen sare publikoaren eta pribatuaren kudeaketa bateratzea eta gainikustea.
2. Bizkaiko Lurralde Historikoko egotetxeen sarearen birmoldaketa orokorra bideratzea, babestu beharreko adingabekoen beharrezanean egokitzeko.

Jarduerak:

1. GUFek gaur egun Gizartekintza Saileko Haurrentzako Zerbitzuak egotetxean abegi egiteko kontrataturik dituen plazak bereganatuko ditu, eta geroztik babestu behar diren adingabekoen beharrezaneterako behar diren abegi plazak kontratatu beharra ere bereganatuko du.
2. Hitzartutako egotetxeen kudeaketa eta gainikuspena GUFeri eskualdatu.
3. Egotetxeetan Abegi Egiteko Unitatearen arduradunaren edo atalburuaren figura sortuko da.
4. Unitatea/Atala antolatuta; gomendatuko da gehienez ere teknikari bakoitzak 35 familia izatea.
5. Prozedura Eskuliburua gertutu eta ezarriko da; ondokoa egin behar ditu:
 - Egotetxeetan Abegi Egiteko Atal edo Unitatearen eginkizunak eta zereginak zehatz-mehatza definitu, eta talde-lana bultzatu.
 - Kasu Koordinatzailearen figura ezarri.
 - Atal edo Unitatearen jardunerako abiaburu, irizpide eta prozedurak definitu, eta lanerako tresnak eta protokoloak eman.
 - Atal edo Unitatearen barruko koordinaziorako eta haren eta gainerako erkidego-zerbitzu edo bitartekoen (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak barne) arteko koordinaziorako tresnak eman.
 - Egotetxeetan Abegi Egiteko Atal edo Unitatearen eta Haurrentzako Zerbitzuaren atal edo unitateen eta Administrazioaren gainerako zerbitzuen arteko erlazioa definitu.
6. Egotetxeetan Abegi Egiteko Unitate/Atalean Prozedura Eskuliburua Ezartzeko Prestakuntza Plana diseinatu eta burutzea, eta hartarako behar diren laguntza teknikoak ematea.
7. Abegi egotetxe guztietan jarduteko irizpide eta prozedura eurak ezartzea ondokoei dagokienez:
 - Egotetxeek babestutako adingabekoei eta haien familiei dagokienez dituzten eskumenak eta erantzukizunak.
 - Banako hezkuntza proiektuak gertutu, abiarazi eta ebaluatzea.
 - Egotetxeek GUFeren Egotetxeetan Abegi Egiteko Unitate/Atalarekin duten erlazioa.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Egotetxeetan Abegi Egiteko Unitatea/Atalarentzat garatutako Prozedura Eskuliburuaren eta tresna eta protokoloen ezarpenaren gradua.
2. Egotetxeetan Abegi Egiteko Unitate/Atalaren teknikariak eta egotetxeetako profesionalak koordinatzeko eta gainikusteko gehiago eta sarriago biltzea.
3. Egotetxeetan protokolo homogeneousak erabiltzea (a) banako hezkuntza proiektuak egiteko, (b) informazioa erregistratzeko, eta (c) Egotetxeetan Abegi Egiteko Unitate/Atalari adingabekoekin izandako eskuhartzeari buruzko idatzizko txostenak aldian-aldian bidaltzeko.

2C AZPIEGITARAUA. GIZARTEKINTZA SAILEKO ZERBITZUAREN BERRANTOLAKUNTZA**Helburuak:**

1. Gizartekintzako Haurrentzako Zerbitzuaren lanaren eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea.

Jarduerak:

1. Haurrentzako Zerbitzua berrantolatu eta bi unitate edo atal sortu: (1) Harrera, Balorazioa eta Orientazioa, eta (2) Famili Abegia eta Adopzioa.
2. Harrera, Balorazioa eta Orientazioaren Unitate/Atalaren berezko zeregin hauek sustatu:
 - Haurrentzako Zerbitzuan sartzen diren kasu berri guztiak hartu, bai Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik datozena bai bestelakoak
 - Kasuak ikertu eta ebaluatu.
 - Kasu bakoitzerako esku hartzeko plana diseinatu.
 - Neurri edo jarduketa baten proposamena egin eta Adingabekoak Baloratzeko Batzorde Teknikoari bidali.
 - Esku hartzen hasi eta, beren etxean bizi diren adingabekoak babesteko espedienteetan, Kasu Koordinazioaren zereginak burutu. Kasu horietako esku hartzeko plana betearazi, etengabe ebaluatu eta behar diren gauzak aldatu.
 - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin eta babesgabezia kasuak detektatzeko eta jakinarazteko kanpoko iturriekin koordinazioa iraunkorra izan dadin behar dien guztia egiteko ardura bereganatu.
3. Famili Abegia eta Adopzioaren Unitate/Atalaren berezko eginkizun hauek sustatu:
 - Zerbitzura famili abegiari edo adopzioari buruzko argibideak eskatzen duten pertsoneri jaramon egin.
 - Famili abegiak kudeatu eta gainikusi familia hautatzean eta adingabekoa eta abegi-familia bateratzen direnean. Laguntzako kanpoko talde batek abegi-familiak erakarri, aukeratu eta prestatzeko ardura izango luke, bai eta adingabekoa familiara moldatzeko, familia naturalari laguntza emateko eta harekin lan egitekoa, eta abegia nondik nora dabilen begiztatzea.

- Adingabekoaren espedientea jaso, Adingabekoak Baloratzeko Batzorde Teknikoak bidalia, behin kasua abegira bideratzea erabakiz gero.
 - Esku hartzeari ekin eta Kasuaren Koordinazioa egin (zuzendu, koordinatu eta gainikusi) famili abegian dauden kasu guztiekin eta aldi baterako, abegi-familia egokia aurkitu arte, egoetxeko abegira bideratzen direnekin. Kasu horietako esku hartzeko plana betearaztea, etengabe ebaluatu eta behar diren gauzak aldatu. Honen barruan sartu behar da adingabeko bat edo batzuk aldi baterako abegian dituzten familiekin esku hartzea.
 - Adingabekoa adoptatu nahi duten familia baloratu eta aukeratu, eta nazio barruko zein nazioarteko adopzioaren prozesua kudatzea.
4. Unitate arduradunaren edo atalburuaren eginkizunak sortu eta definitu.
 5. Adingabekoen gaiak epaile aurrean tramitatzeko eta haien jaraunspenak eta ondasunak administratzeko behar diren bitartekoak sortu.
 6. Ondokoak egingo dituen Prozedura Eskuliburua sortu:
 - Zehatz-mehatza definitu atal edo unitate bakoitzak eta teknikari bakoitzak (gizarte langileek, psikologoek, bestelakoek) egin beharreko eginkizunak eta zereginak, eta talde-lanerako mekanismoak ezarri.
 - Kasu Koordinatzailearen figura ezarri.
 - Jarduteko abiaburuak, irizpideak eta prozedurak definitu, teknikoak zein administratiboak.
 - Atal edo unitate bakoitzari berari esleitutako eginkizunak eta zereginak egiteko behar dituen tresnak eta protokoloak eman.
 - Barruko koordinaziorako eta kanpoko koordinaziorako behar diren tresnak eta protokoloak eman. Ondokoak bultzatuko dituzten koordinazio-protokoloak prestatu behar dira:
 - * Zerbitzuak izango dituen unitate edo atalen arteko koordinazioa.
 - * Hiru unitateen eta Zerbitzutik kanpoko erakundeekin hitzartutako egitarauen arteko koordinazioa: familian esku hartzeko egitarauak, familian abegi egitekoak eta egotetxeetan abegi egitekoak.
 - * Haurrentzako Zerbitzuaren eta erkidegoaren gainerako zerbitzu eta bitartekoen arteko koordinazioa (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak barne).
 7. Prestakuntzako Plana diseinatu eta abiaraztea Haurrentzako Zerbitzuaren unitate horietan Prozedura Eskuliburua ezartzeko, eta horretarako behar diren laguntza teknikoak ematea.
 8. Zerbitzu barruko talde-lana bultzatu eta elkartruke eta koordinaziorako bilgune iraunkorrak ezarri.
 9. Zerbitzuaren inguruabar fisikoak hobetu, egiten diren jardueretara eta teknikari eta erabiltzaileen beharrezanetera moldatu (babespetekotasuna, adingabekoak eta senideak elkartzen direnean intimitatea gordetzen duten aretoak, espedienteak gordetzeko tokiak etab.).

10. Administrazio-langileen eginkizunak sailkatu, haien lanean lehentasunak ezarri, eta langile teknikoeki izango duten erlazioa zehaztu.
11. Administrazio prozedurarako irizpideak definitu eta protokoloak sortu.
12. Espedienteak antolatzeke baterako sistema ezarri.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Kasuen kopuruaren eta teknikarien kopuruaren arteko proportzioa txikitu da; orain teknikari bakoitzak 35 familia ditu gehienez.
2. Harrera, Balorazio eta Orientazioa eta Famili Abegia eta Adopzioa unitate edo atalek garatutako Prozedura Eskuliburuaren eta bitarteko eta protokoloen ezarpenaren gradua.
3. Espedienteetan erabakia hartu aurretik ikerketa-ebaluazioko prozesu batetik pasatu direla, kasu horretarako plan berezia egin dela, plana bete dela eta aldiari-aldiari berrikusi dela frogatzen duten agiriak egotea.
4. Zerbitzuko langileen asebetetze-gradua.
5. Prestakuntzako ikastaro eta jardueren kopurua.

2D AZPIEGITARAU. ESPEDIENTEAK INFORMATIZATZEA

Helburuak:

1. Espedienteetako informazioa antolatuz eta sistematizatuz gordetzea, halako moldez non espediente bakoitzeko informazioa erraz eta azkar eskuratzeko eta ebaluatu Babes Sistemaren funtzionamendua estatistiken bidez baloratzeko modua egongo baita.

Jarduerak:

1. Datutegiaren bidez Gizartekintzak nolako informazioa eta estatistikak lortu nahi dituen zehaztu.
2. Datutegia Prozedura Eskuliburuan definitutako jarduteko prozeduraren arabera diseinatu.
3. Espedienteetako datuak datutegian sartu beharko dituzten langileei lan hori nola egin irakatsi.
4. Gizartekintza Sailak hasita dituen espediente guztiak informatizatu.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Informatizatutako espedienteen kopurua.

3. Egitaraua: Erabakibideen kalitatearen hobekuntza oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta haurrentzako zerbitzuan

3A AZPIEGITARAUA. IKERKETA-EBALUAZIO PROZESUAREN HOBEKUNTZA

Helburuak:

1. Erabakiak hartu aurretik ikerketa-ebaluazio prozesua egin beharra ezartzea bai Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan bai Haurrentzako Zerbitzuan.
2. Ikerketa-ebaluazioko erabereko prozedura bateratua ezartzea Bizkaiko Lurralde Historikoko OGZ guztietan, hain zuzen ere biltzen den informazioa erabakia hartzeko aski dela ziurtatuko duena.
3. OGZe eta Haurrentzako Zerbitzuari ikerketa-ebaluazioan biltzen den informazioa baloratzeko irizpideak ematea.

Jarduerak:

1. Haurrak babesik gabe daudenerako Prozedura Eskuliburua prestatu, ondokoak definitu dituenak:
 - Ikerketa-ebaluazioaren helburuak.
 - OGZek eta Haurrentzako Zerbitzuak fase honetan dituzten eginkizuna eta zeregin zehatzak, eta haien arteko erlazioa.
 - Ikerketa-ebaluazioaren edukia eta hartan abiarazi beharreko prozedura.
 - Tresnak eta protokoloak.
 - Administrazio eginkizunak eta prozedurak mugatu.
2. Eskuliburua Haurrentzako Zerbitzuan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko OGZ guztietan zabaltzea.
3. OGZen eta Haurrentzako Zerbitzuaren teknikarientzako prestakuntzako egitaraua prestatu eta garatatu ikerketa-ebaluaziorako

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Ikerketa-ebaluaziorako garatutako Prozedura Eskuliburuaren eta tresna eta protokoloen ezarpenaren gradua.
2. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek Haurrentzako Zerbitzuari bidaltzen dizoten ikerketa-ebaluazioko txostenetan ageri den informazioa ugariagoa eta kalitate handiagoa izatea.
3. Haurrentzako Zerbitzuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak bidalitako txostenean ageri dena bere eskumenekoa ez dela eta beste zerbitzu batera pasatu behar dela erabakitzen duen kasuen kopurua txikitzea.
4. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Haurrentzako Zerbitzuaren profesionalen adostasuna lortzea Kasu Planaren inguruan.

5. Gizarte langileak, psikologoak eta Haurrentzako Zerbitzuaren beste teknikari batzuk ikerketa-ebaluazioan lankidetzan eta batera aritzea.
6. Prestakuntzako ikastaro eta jardueren kopurua.

3B AZPIEGITARAUA. ERABAKIAK HARZEKO PROZESUEN HOBEKUNTZA

Helburuak:

1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Haurrentzako Zerbitzuak babesik gabe dauden adingabekoez hartzen dituzten erabakiak oinarria irizpide homogeneoak eta baliagarriak izatea bultzatzea.
2. Erabakiak hartzean ahalik akatsik gutxien gertatzea lortzea.

Jarduerak:

1. Haurrak babesik gabe daudenean esku hartzeko Prozedura Eskuliburua sortu; Eskuliburuan ondokoa definituko dira:
 - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek haurren babesgabeziaren larritasuna baloratzeko eta esku hartzeko modua erabakitzeko irizpide homogeneo eta baliagarriak.
 - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen kasuak Haurrentzako Zerbitzura bidaltzeko irizpide homogeneoak eta tresnak.
 - Haurrentzako Zerbitzuak haurren babesgabeziaren larritasuna baloratzeko eta esku hartzeko modua erabakitzeko irizpide homogeneo eta baliagarriak, batez ere adingabekoa bere familialtik aldi batez edo betiko bereizi behar denean.
 - Lan-prozedurak eta administrazio jarduketa
2. Eskuliburua OGZetan eta Haurrentzako Zerbitzuan zabaldu eta apurka-apurka ezarri.
3. OGZen eta Haurrentzako Zerbitzuaren langileei erabakitzeko prozesuari buruzko prestakuntza eman.
4. Haurrentzako Zerbitzuan adingabekoei buruzko erabakiak beti taldean hartuko direla ziurtatuko duen lan-prozedura ezarri.
5. Adingabekoak Baloratzeko Batzorde Teknikoan eta Abegi eta Adopzio Batzan erabakiak hartzeko prozesuak arintzeko eta hobetzeko behar diren aldaketak egin egituran eta funtzionamenduan.
6. Fiskaltzan koordinatzeko prozedura iraunkorra ezarri.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Erabakiak hartzeko prozesurako garatutako Prozedura Eskuliburuaren eta tresna eta protokoloen ezarpenaren gradua.
2. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek bidali eta Haurrentzako Zerbitzuak ezegokitzat jotzen dituen kasuen kopurua murriztea.

3. Haurrentzako Zerbitzuak erabakiak denbora-tarte egokian hartzea.
4. Adostasun handiagoa erabakiak hartzean.
5. Fiskaltzarekin harreman hobekia izatea.
6. Prestakuntzako ikastaroen eta jardueren kopurua.

4. Egitaraua: Babeserako baliabideak adingabekoen beharrezanei egokitzea

4A AZPIEGITARAUA: FAMILIEN ALDE ESKU HARTZEKO EGITARAUEN GARAPENA

Helburuak:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan familien alde esku hartzeko egitarau espezializatuak izatea, ondokoak lortzeko: (a) adingabekoak beren familia girotik eta gizarte girotik ez bereiztea haurraren babesgabezia nahikoa handia edo handia denean (familia baturik mantentzea); (b) familiatik bereizi beharra dagoenean, adingabekoak hara itzul dadin lortzea (familia berriro batzea).
2. Familien alde esku hartzeko egitarauen eraginkortasunerako irizpideak ezarri, bai eta haiek ebaluatzeko sistemak ere.
3. Sarea era homogeneoan eta orokorrean ezarri Bizkaiko Lurralde Historikoan, itzalgabezia, zaindu beharrean edo familiatik bereizteko arriskuan dauden haur guztiei lagundu ahal izateko.

Jarduerak:

1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan bitarteko horiek beharko dituzten kasuen kopuruaren aurreikuspena egin, zenbat talde beharko diren jakiteko.
2. Familia baturik mantentzeko eta familia batzeko egitarau homogeneoak sortu Bizkaiko Lurralde Historikorako, hau da, helburuak, jaramon egin zaien herritarrak, bitartekoak, esku hartzeko prozedura,aldiak, eta emaitzak ebaluatzeko sistema.
3. Egitarau horietako bakoitzera bidali behar diren kasuak zehazteko irizpideak eta tresnak definitu.
4. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan familia baturik mantentzeko egitarauak burutzen dituzten taldeak hitzartzea bultzatzea, haurren babesgabezia moderatua den kasuetarako.
5. Haurrentzako Zerbitzuak taldeak kontratatu ondokoak egitarauak buru ditzaten: familia batzeko egitarauak haurren babesgabezia oso larria denean, tratamenduko egitarau espezializatuak familia barruan sexu-abusuak gertatzen direnean, gurasoei laguntza emateko egitarau iraunkorrak, haien beharrezan asetzeko nahikoak.
6. Talde horien eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Haurrentzako Zerbitzuaren arteko erlazioa definitu, bai eta haien arteko gainikuspen-koordinazio sistemak ere.
7. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako eta Haurrentzako Zerbitzuko profesionalen prestakuntza eman halako egitarauen garapenari eta gainikuspenari buruz.

8. Ebaluaziorako sistema iraunkorra garatu eta mantendu, ondokoak biltzen dituena: estalduraren ebaluazioa, prozesuaren ebaluazioa, eta egitarauen emaitzen ebaluazioa; horrela, egitarauak hobetu eta zuzentzeko sistemak ezarri ahal izango dira, kalitatea ahalik handiena izan dadin eta eskuhartzea eraginkorra izan dadin.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Larritasun moderatuko babesgabezia arazoak izateagatik familien alde esku hartzeko egitarauetan sartzen diren adingabeko eta familien kopuruak gora egitea.
2. Larritasun handiko babesgabezia arazoak edo itzalgabezia/zaintza egoeran izateagatik familien alde esku hartzeko egitarauetan sartzen diren adingabeko eta familien kopuruak gora egitea.
3. Larritasun moderatuko edo handiko babesgabezia egoteagatik familia girotik bereizi behar diren haurren kopuruak behera egitea.
4. Aldi batez bereizita egon ondoren familiaren etxera itzultzen diren adingabekoen kopurua igotzea.
5. Egitaraua honi buruzko prestakuntzarako egiten diren ikastaroen eta jardueren kopurua.

4B AZPIEGITARAUA. FAMILIETAN ABEGI EGITEKO BALIABIDEAK BARATZEA ETA ADINGABEKOEN BEHARRIZANEI EGOKITZEA

Helburuak:

1. Itzalgabezia/Zaintza egoeran dauden adingabeko guztiei familia batean abegi egiteko prozesua abiaraztea.
2. Familian abegi egiteko dauden modalitate guztiak garatzea (arrunta, iraunkorra, adopzio aurrekoa; besteren familia, familia zabala, profesionalizatua), babes sisteman hartzen diren adingabekoen beharrianak asetzeko.
3. Familian abegi egiteko egitarauen eraginkortasun-irizpideak eta haiek ebaluatzeko sistemak ezarri.

Jarduerak:

1. Famili Abegiaren funtsezko alderdiak definituko dituen Prozedura Eskuliburua egin:
 - famili abegiaren modalitate bakoitzean sar litezkeen adingabekoak zehaztu
 - famili abegiaren modalitate bakoitzean arrakasta lortzeko abiarazi behar diren prozedura eta eginkizunak
 - familia zabalean abegi egitea egokia ote den baloratzeko irizpideak
 - familia jakin bat famili abegiaren modalitatearen baterako egokia ote den baloratzeko irizpideak
 - famili abegiko egitarauak abiarazteko prozedura eta protokoloak

2. Famili Abegiaren Unitate/Atalean Prozedura Eskuliburua ezartzeko Prestakuntza Plana diseinatu eta burutu, eta horretarako behar den laguntza tekniko eman.
3. Abegi egingo duten familia erakartzeko kanpaina iraunkor eta epe luzekoak abiarazi.
4. Abegi egingo duten familien eskariak asetzeko behar den azpiegitura diseinatu eta prestatu, eskariak ongi hartu eta jaramon egingo zaiela bermatu, familai aurrez ezarritako irizpideen arabera prestatu, eta abegi-familiei laguntzeko egitarauak garatu.
5. Lehenetsuna eman besteren familiako abegi arruntari eta abegi profesionalizatuari.
6. Haurrentzako Zerbitzuaren unitate/atal guztietako eta GUFeko teknikariei famili abegiko modalitate berriei buruzko prestakuntza eman.
7. Gau egun aribidean den Famili Abegiko Egitarauari ekin eta behar diren aldaketa egokiak egin.
8. Beharrezkoa bada, egitarau horiek kudeatzeko talde espezializatu berriak kontratatu.
9. Ebaluaziorako sistema iraunkorra garatu eta mantendu, ondokoak biltzen dituen: estalduraren ebaluazioa, prozesuaren ebaluazioa, eta egitarauen emaitzen ebaluazioa; horrela, egitarauak hobetu eta zuzentzeko sistemak ezarri ahal izango dira, kalitatea ahalik handiena izan dadin eta eskuhartzea eraginkorra izan dadin.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Abegi egiten duten familiak adingabekoen beharrizanei hobeki egokitzea.
2. Famili abegiko modalitate guztietan arrakastarekin abegi egiten zaien adingabekoen portzentaia igotzea.
3. Besteren familiako abegi arruntean arrakastarekin dauden adingabekoen portzentaia igotzea.
4. Famili abegi profesionalizatuan arrakastarekin dauden adingabekoen portzentaia igotzea.
5. Erabakia hartzen denetik famili abegia gauzatu bitarteko denbora laburragoa izatea.
6. Familia zabalean abegi egitea ote den ebaluatzeko txostenen kalitatea hobetzea.
7. Prestakuntzarako egiten diren ikastaroen eta jardueren kopurua.

4c AZPIEGITARAUA. EGOTETXEETAN ABEGI EGITEKO BALIABIDEAK ADINGABEKOEN BAHARRIZANE EGOKITZEA

Helburuak:

1. Abegi egotetxeen ezaugarriak dibertsifikatzeko eta babestu beharreko adingabekoen beharrizanei egokitze prozesua hastea. Egokitzen-prozesu hori burutzeko, lehenengo eranskinen deskribatu diren proposamenei egingo zaiei jaramon.

Jarduerak:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan babestu beharreko adingabeko guztien beharizanak asetzeko

behar diren abegi egotetxeak diseinatu: ezaugarri fisikoak (kokaera, plaza kopurua etab.), langileen ezaugarriak (koalifikazioa, kopurua etab.), eta barruko funtzionamendua.

2. Egotetxe eta etxe guztietan ari diren hezitzaileen espezializazioa eta koalifikazioa bermatu eta homogeneizatu.
3. Abegi egotetxeen sarea apurka-apurka berrantolatzeke prozesua abiarazi, haien ezaugarriak adingabekoen beharizan zehatzetara moldatzeko (**Haurrentzako Planaren hirugarren eranskinean xehe-xehe agertarazi dira egokitzapen-prozesu honen gidallerroetako batzuk**).
4. Egotetxeetako hezitzaile eta zuzendarien ardurak eta eta eginkizunak definitu, bai eta Egotetxeetan Abegi Egiteko Unitate/Atalarekin duten erlazioa ere.
5. Lehentasuna eman egotetxe handiak etxe funtzional bihurtzeari; halako bakoitzean gehienez ere hamabi plaza egongo dira.
6. Lehentasuna eman jokaera-arazo bereziak edota nahasmendu psikopatologikoak dituzten adingabekoentzako baliabidea sortzeari.
7. Behar diren zentru eta egotetxeetan prestakuntzako egitarau berezia sortu egotetxeetako hezitzaile eta arduradunentzat.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Egotetxe handiak desagertzea eta haien ordez gehienez hamabi plaza dauden etxe funtzionalak sortzea.
2. Adingabekoen eta hezitzaileen arteko proportzioa txikitzea.
3. Hezitzaileen espezializazioaren eta koalifikazioaren homogeneitatea gora egitea.
4. Egotetxeetan adingabekoen eta hezitzaileen artean gertatzen diren gatazka eta arrisku egoerak murriztea.
5. Jokaera-arazo bereziak dituzten adingabekoei laguntza espezializatu hobea ematea.

5. Egitaraua: zerbitzu espezializatuen eta administrazioaren beste erakunde eta zerbitzu batzuen arteko koordiazioa hobetzea

5A AZPIEGITARAU: ZERBITZU ESPEZIALIZATUEN ETA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEA.

Helburuak:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan haurren babesaren arloan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Zerbitzu Espezializatuek irizpide eta jarduteko prozedura eurak erabil ditzatela lortzea.
2. Babesik gabeko haurrekin esku hartu behar denean, Zerbitzu Espezializatuen eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazioa lortzea.

Jarduerak:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Haurrentzako Zerbitzuak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek haurrak babesik gabe daudenerako Esku Hartzeko Eskuliburua egin dezaten bultzatu; Eskuliburuan bi zerbitzuen eginkizunak definituko dira (eta gainerako herri administrazioena) ondoko fase hauetan: detekazioa, jakinarazpena, ikerketa-ebaluazioa, erabakia hartzea, esku hartzea.
2. Haurrak Babesteko Udal Batzordeak sortu, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta beste zerbitzu eta erakunde batzuk (Hezkuntza, Ertzaintza eta Osasuna) Zerbitzu Espezializatuekin koordinatzeko eskuhartzearen zeregin eta fase guztietan.
3. Harrera, Balorazioa eta Orientazioaren Unitate/Atalak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin erlazio iraunkorra izatea sustatzeko eta mantentzeko ardura bereganatuko du.
4. Bi zerbitzuak koordinatzeko tresnak eta protokoloak garatu.
5. Baterako prestakuntzako jarduerak bultzatu.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako eta Zerbitzu Espezializatuetako teknikarien arteko elkartukerako eta komunikaziorako bilgune iraunkorren ezarpenaren gradua.
2. Bi zerbitzuak koordinatzeko tresnen eta protokoloen ezarpenaren eta erabilpenaren gradua.
3. Larritasun handiko babesgabezia dauden haurrek Zerbitzu Espezializatura joan aurretik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan igarotzen duten batez besteko denbora txikitzea.
4. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako kasuak Zerbitzu Espezializatuetara deribatzea Prozedura Eskuliburuan ezarritako kasuetan bertako prozeduren arabera.
5. Prestakuntzako ikastaro eta jardueren kopurua.

5B AZPIEGITARAUA: ZERBITZU ESPEZIALIZATUEN ETA ADMINISTRAZIOAREN BESTE ERAKUNDE ETA ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEA.**Helburuak:**

1. Koordinazio egokia lortzea Gizarte Zerbitzu Espezializatuena, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Hezkuntza, Osasun, Fiskaltza, epaitegi eta poliziaren artean babesik gabe dauden haurren kasuetan eskun hartu behar denean.
2. Arartekoak haurren babesaren arloan dituen eskumenak eta eginkizunak zehaztea.

Jarduerak:

1. Haurrentzako Zerbitzuaren arduradunak, Hezkuntzako eskuordetzetako eta Osakidetza arduradunak eta udaltzaingoen eta Ertzaintza arduradunak koordinatzeko bilgune iraunkorrak sustatu.
2. Hezkuntza Sistemako profesionalak haurren babesgabeziaz sentsibilizatzeko eta prestatzeko jarduerak bultzatu:

- Ikastaro zehatzak eman
 - Irakasle ari direnen eta irakasle izateko ikasten ari direnen prestakuntzan haurren babesgabezia kasuak detektatzeko eta jakinarazteko eta halakoetan koordinaturik esku hartzeko prestakuntza emateko eskatu.
 - Irakasleek haurren babesgabezia kasuak detektatzea eta jakinaraztea eta halakoetan koordinaturik esku hartzea bultzatzeko agiriak diseinatu eta argitaratu
3. Osasun sistemako profesionalak haurren babesgabeziaz sentsibilizatzeko eta prestatzeko jarduerak bultzatu:
- Ikastaro zehatzak eman
 - Pediatra, pediatriako erizain eta laguntzaile, eta psikiatra ari direnen eta horretarako ikasten ari direnen prestakuntzan haurren babesgabezia kasuak detektatzeko eta jakinarazteko eta halakoetan koordinaturik esku hartzeko prestakuntza emateko eskatu.
 - Profesional horiek haurren babesgabezia kasuak detektatzea eta jakinaraztea eta halakoetan koordinaturik esku hartzea bultzatzeko agiriak diseinatu eta argitaratu.
4. Udaltzainak eta ertzainak haurren babesgabeziaz sentsibilizatzeko eta prestatzeko jarduerak bultzatu, eta haurren babesgabeziaren arloko espezializazioa bultzatu ondokoen bidez:
- Ikastaro zehatzak eman
 - Polizia ari direnen eta horretarako ikasten ari direnen prestakuntzan haurren babesgabezia kasuak detektatzeko eta jakinarazteko eta halakoetan koordinaturik esku hartzeko prestakuntza emateko eskatu.
 - Profesional horiek haurren babesgabezia kasuak detektatzea eta jakinaraztea eta halakoetan koordinaturik esku hartzea bultzatzeko agiriak diseinatu eta argitaratu.
5. Adingabekoen Fiskaltzaren, Aldundiaren Aholkularitza Juridikoaren eta Haurrentzako Zerbitzuko arduradun teknikoek arteko elkartruke eta koordinaziorako bilgune iraunkorra sortzea sustatu, haurren babesaren arloan jarduteko irizpideak koordinatzeko.
6. Bizkaiko fiskal eta epaileei haurren gaitasunen araberako prozedura egokiak erabili beharra planteatu, epaibidean dabilzan adingabekoei behar ez den kalterik ez egiteko.
7. Haurrentzako Zerbitzuaren eta Justizi Administrazioaren arteko koordinazioa argitu eta familiabegia, gurasoen ahalgoa eta abarrak baloratzeko irizpide baterakoak ezarri.
8. Haurrentzako Zerbitzuko eta lehen aipatutako sistemetak profesionalen arteko baterako jarduerak bultzatu.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Osasun, hezkuntza edo polizia zerbitzuek babesgabezian dauden haur gehiago detektatu eta jakinaraztea.

2. Osasun, hezkuntza edo polizia zerbitzuak azkarrago eta koordinatuago aritzea Haurrentzako Zerbitzuarekin batera ikerketa/ebaluazio fasean eta esku hartzean.
3. Haurrentzako Zerbitzuko arduradunek eta teknikariak Administrazioaren beste erakunde eta zerbitzu batzuetako arduradunekin informazio elkartrukatzeko eta koordinatzeko bilera gehiago egitea.
4. Prestakuntzako ikastaro, mintegi eta jardueren kopurua.
5. Haurrentzako Zerbitzuak babesgabeziako kasuak detektatzeko eta jakinarazteko eta erakundeen arteko koordinazioa areagotzeko plazaratu edo finantzatu dituen agerkeriak.

6. Egitaraua: Haurren eskubideen eta haurren babesari buruzko lege garapenaren sustapena

Helburuak:

1. Haurren Eskubideen Konbentzioaren edukiaren hedapena eta aplikazioa sustatzea. Konbentzio hori Nazio Batuen Biltzar Nazionalak onetsi zuen 1989ko azaroaren 20an.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan "Adingabekoaren Lege" bat argitaratzea bultzatzea.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Foru Aldundietako Haurrentzako Zerbitzuen arteko koordinazioa sustatzea, Haurrak Babesteko koordinazioa alegia.
4. Eusko Jaurlaritzarekin eta EAEko gainerako Foru Aldundiekin batera, lege- eta arau-garapena bultzatzea, Egotetxeen eta Zentruen baimen-, kreditatze-, homologazio- eta kalitate-alderdietan.

Jarduketak:

1. Haurren Eskubideen Konbentzioaren edukia hedatzeko biztanleriari orokorrean zuzendutako jarduerak egitea bultzatzea.
2. Konbentzio horren edukia hedatzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko haurrei zuzendutako jarduerak egitea bultzatzea
3. Bizkaiko Lurralde Historikoan Haurren Eskubideak aplikatzeari buruzko datuak biltzea.
4. Amankomuneko ekimenak dituzten, esperientzia berritzaileak indartzen dituzten eta Lurralde bakoitzean dauden ezagupenei eta esperientziei atarramendua ateratzen dieten hiru Foru Aldundietako Haurrentzako Zerbitzuetako profesionalen eta arduradun politikoen arteko koordinaziorako gune egonkorra sortzeko ekintza politikoak eta teknikoak sustatzea.
5. Euskal Autonomia Erkidegoan Haurren Babesari buruzko legeak areago garatu beharra gune egokietan planteatzea.

Ebaluazio-adierazkariak:

1. Haurren Eskubideak hedatzeko jarduera kopurua, haur eta helduentzat egina, Haurrentzako Zerbitzuak ekin edo lagundua.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoan Haurren Eskubideak aplikatzeari buruzko txostenak aldizka egitea.
3. EAEko gainerako Foru Aldundietako arduradun eta teknikariekiko koordinaziorako baterako jardueren kopurua.

7. Egitaraua: Haurrentzako planaren etengabeko ebaluazioa

Helburuak:

1. Informazioa biltzeko sistema bat diseinatzea. Sistema horrek hainbat gauzari buruzko datu fidagarriak eman behar ditu. Gauza horiek honakook dira: babes-espedientearekiko adingabekoen kopurua, lege-egoera, ezaugarri soziodemografikoak, erabilitako baliabideak, eskuhartzeen emaitzak eta abar. Era berean, hark datozen urteetan Bizkaiko Haurren Babeserako Sistematan gertatzen joango diren aldaketak kontrolatu eta begiratzea ahalbidetu behar du.
2. Haurrentzako Planaren garapena, haren helburuak iritsi diren maila eta horretan eragina izan duten faktoreak ebaluatzea.
3. Haurrek babesik ez dutenetan esku hartzeko abiarazitako egitarau eta baliabideen eraginkortasuna ezagutzea ahalbidetzen duen ebaluazio-sistema bat diseinatzea.

Jarduerak:

1. Plana abiarazi aurretik, ebaluazio-prozedura bat eta adierazkarien sistema bat diseinatzea, zertarako-eta Planeko egitarauak eta azpiegitarauak ezartzeko prozesua eta beronen emaitzak ebaluatu ahal izateko.
2. Plana abiarazi aurretik adierazkari horiek ebaluatzea.
3. Adierazkariok ondoz ondo ebaluatzea. Adierazkari horiek Planaren betearazpenerako denboran zehar izan duten bilakaera erkatzea.
4. Plan hori ezartzen den bitartean abiarazten diren egitarauen eta Haurrentzako Zerbitzuaren Unitate/Atalen helburuak, irizpideak eta eraginkortasun-adierazkariak ezartzea. Helburu eta adierazkariok Planaren oinarri diren abiaburuen gidalerroei jarraituz egin beharko dira.
5. Planean abiarazten diren eskuhartzeko egitarau-baliabide berrien eraginkortasuna eta eragingarritasuna ezagutzea ahalbidetzen duen ebaluazio-sistema bat diseinatu eta ezartzea.
 - Ikertzeko eta ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko prozeduraren kalitatea.
 - Familien Alde Esku Hartzeko Egitarauak.
 - Famili Abegia.
 - Egotetxee Abegia.

Ebaluazio-sistema horretan sartuta honakook egongo dira: estalduraren ebaluazioa, prozesuaren ebaluazioa eta ezartzen diren egitarau guztien emaitzen ebaluazioa.

Planaren aldien hurrenkera orokorra

Jarduera	1 Fasea	2ª Fasea	3ª Fasea
Beharizan-analisisa	XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX		
Haurrentzako Zerbitzua-GUJE Koordinazioa	XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX		
Zentru-sarearen kudeaketaren zentralizazioa	XXXXXXXXXXXX		
Haurrentzako Zerbitzua berriro antolatzea	XXXXXXXXXXXX		
Prozedura-eskuburua egitea	XXXXXXXXXXXX	XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX	XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
Heziketa Plana diseinatu eta garatzea			XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
OGZen eta Haurrentzako Zerbitzuaren arteko koordinaziorako guneak			XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
Famili Eskuhartzeko talde espezializatuak		XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX	XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
Egotetxe/Zentruen Sarearen birmoldaketa	XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX	XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX	XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
Famili Abegiko beste era batzuen sustapena		XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX	XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

Lehenengo eranskina: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Zerbitzu Espezializatuek babesik gabe aurkitzen diren haurren alde esku hartu ahal izateko behar dituzten familietan esku hartzeko egitarauen diseinua eta ezaugarriak

a) Haurren babesgabezia larritasun arin eta moderatukoa denean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek familien alde esku hartzeko behar dituzten egitarauak eta haiek izan behar dituzten gutxieneko baliabideak:

FAMILIA BATURIK MANTENTZEKO EGITARAUAK:

Egitarauok bi helburu dituzte: (a) gurasoak beren seme-alabak behar bezala zaindu eta haiei jaramon egiteko gai izatea eta (b) haurrek maila fisikoan, maitasunezkoan, ezagutzezkoan eta gizartezkoan garapen osasuntsu eta normalizatuko prozesua izatea sustatzea. Egitarau hauen azken helburua xede nagusiari begira dago. Xede nagusi hori honako hau da: babesik gabeko egoera larriagotzea eta, ondorioz, etorkizunean haurra bere berezko famili eta gizarte ingurunetik berezi beharra saihestea

Egitarau hauek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalen gidalerroen pean jardungo lukete. Egitarauok honakook izan beharko lituzkete: (a) "kasuko ikuskatzaile"aren figura eta (b) famili hezitzaileak. "Kasuko ikuskatzaile"ak Haurren Babesean espezializatutako heziketarekiko pertsona izan beharko luke. Eta hainbat gauzaz arduratu behar du. Gauza horiek honakook dira:

- Familia bakoitzarekin esku hartzearen helburu espezifikoak egitea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek Eskuhartzerako egindako Planari jarraituz.
- Famili hezitzaileak hautatu, zuzendu, berauei lagundu eta berauek ikuskatzea.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekiko koordinazioa eta kasuaren bilakaerari buruzko aldizkako txostenak egitea.
- Familia bakoitzaren informazioaren zentralizazioa.

- Beste erkidego-zerbitzu batzuek kasuan parte hartzea (esate baterako, buru-osasunerakoak, toxikomaniei eta alkoholismoari aurre egiteko zerbitzuak) eta kasu bakoitzean esku hartzen duten erkidegoko zerbitzuen eta profesionalen sare osoaren koordinazioa. Lan hori famili hezitzaileekin batera egin beharko luke.
- Egitarau ebaluatzeko beharrezko informazioa biltzea.

“Kasuko ikuskatzaile” bakoitzak funtziook gehienez 35 familiarekin egingo lituzke (dedikazio osoa).

Famili hezitzaileek gutxienez astean bi aldiz bisitatu beharko lukete familia bakoitza. Bisita bakoitza ordubetekoa izango litzateke. Hezitzaileok astean kasu bakoitzean esku hartzeko launa ordu izango lukete esleituta. Beraien funtziook honakook izango lirateke:

- Familiaren kideekin zuzenean esku hartzea, zertarako-eta lagundu, laguntza eman, irakatsi moldatzeko.
- “Kasuko ikuskatzaile”arekiko haien eskuhartzea ikuskatzea eta haien jardueren plangintza.
- Kasuan esku hartzen duten gainerako profesionalen eta zerbitzuen jarduketa “kasuko ikuskatzaile”arekin batera koordinatzea (esate baterako, Gizarte Zerbitzuena, eskolarena, osasun-zerbitzuarena, buru-osasunerakoarena).
- Kasuan egindako bisita eta jarduera guztiak idatziz erregistratzea.
- Lekualdaketak.

Famili hezitzaile bakoitzak gehienez zortzi familiari egin ahalko lieke jaramonaldi berean.

Egitarau hauek erkidegoko zerbitzuen sarearekin ezin hobeto koordinatuta egon beharko lukete eta haiek ahalik eta gehien erabili beharko lituzkete. Bereziki garrantzitsua izango litzateke beraien zerbitzu batzuekiko koordinazioa. Zerbitzu horiek honakook dira: Helduen eta Haurren Buru-osasunerako zerbitzuak eta alkoholismoa eta toxikomaniak tratatzeko zerbitzuak.

Egitarauok familiaren kideenganako laguntzarako eta laguntasunerako lanetako bolondresen lankidetzat sustatu beharko lukete. Bolondresen erabilera “kasuko ikuskatzaile”ak beti ikuskatu behar du. Eta, gainera, erabilera horretarako laguntza tekniko eman behar du.

b) Haurren babesgabezia larritasuna moderatua eta handia denean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek familien alde esku hartzeko behar dituzten egitarauak eta haiek izan behar dituzten gutxieneko baliabideak:

1. FAMILIA BATURIK MANTENTZEKO EGITARAUAK ETA FAMILIA BATZEKO EGITARAUAK:

Egitarauok bi helburu dituzte: (a) gurasoak beren seme-alabak behar bezala zaindu eta haiei jaramon egiteko gai izatea eta (b) haurrek maila fisikoan, maitasunezkoan, ezagutzezkoan eta gizartezkoan garapen osasuntsu eta normalizatuko prozesua izatea sustatzea. Egitarau hauen azken helburua xede nagusiei begira dago. Xede nagusi horiek honakook dira: (a) babesik gabeko kasu larrietan haurra bere

berezko famili inguruetik berezi beharra saihestea eta (b) haurren babesa bermatzeko aldi baterako banantzeko neurria hartu behar izan den kasuetan umeak itzultzea sustatzea. Egitarauok haurren babesik ezaren tipologia guztietan esku hartuko dute, familiaren barneko sexu-abusuan izan ezik. Sexu-abusu horretarako egitarau espezifikoak egongo da.

Egitarau hauek Zerbitzu Espezializatuetako profesionalen gidalerroen pean jardungo dute. Egitarauok honakook izan beharko dute: (a) "kasuko ikuskatzaile"aren figura eta (b) famili hezitzaileak. "Kasuko ikuskatzaile"ak Haurren Babesean espezializatutako heziketarekiko pertsona izan beharko du. Eta hainbat gauzaz arduratu behar du. Gauza horiek honakook dira:

- Familia bakoitzarekin esku hartzearen helburu espezifikoak egitea, Zerbitzu Espezializatuek Esku hartzerako egindako Planari jarraituz.
- Famili hezitzaileak hautatu, zuzendu, berauei lagundu eta berauek ikuskatzea.
- Zerbitzu Espezializatuekiko koordinazioa eta kasuaren bilakaerari buruzko aldizkako txostenak egitea.
- Familia bakoitzaren informazioaren zentralizazioa.
- Beste erkidego-zerbitzu batzuek kasuan parte hartzea (esate baterako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, buru-osasunerakoek, toxikomaniei eta alkoholismoari aurre egiteko zerbitzuek) eta kasu bakoitzean esku hartzen duten erkidegoko zerbitzuen eta profesionalen sare osoaren koordinazioa. Lan hori famili hezitzaileekin batera egingo du.
- Egitaraua ebaluatzen beharrezko informazioa biltzea.

"Kasuko ikuskatzaile" bakoitzak funtziook gehienez 20 familiarekin egingo ditu (dedikazio osoa).

Famili hezitzaileek gutxienez astean bi aldiz bisitatu beharko dute familia bakoitza. Bisita bakoitza ordu eta erdikoa izango da. Hezitzaileok astean kasu bakoitzean esku hartzeko seinak ordu izango dute esleituta. Beraien funtziook honakook izango dira:

- Familiaren kideekin zuzenean esku hartzea, zertarako-eta lagundu, laguntza eman, irakatsi moldatzeko.
- "Kasuko ikuskatzaile"arekiko haien eskuhartzea ikuskatzea eta haien jardueren plangintza.
- Kasuan esku hartzen duten gainerako profesionalen eta zerbitzuen jarduketara "kasuko ikuskatzaile"arekin batera koordinatzea (esate baterako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuena, eskolarena, osasun-zerbitzuarena, buru-osasunerakoarena).
- Kasuan egindako bisita eta jarduera guztiak idatziz erregistratzea.
- Lekualdaketak.

Famili hezitzaile bakoitzak gehienez sei familiari egin ahalko die jaramon aldi berean..

Egitarauok eskuragarritasun etengabea izan beharko dute (24 ordu/egun, 365 egun/urte) krisi-egoerei berehala jaramon egiteari begira.

Egitarau hauek erkidegoko zerbitzuen sarearekin ezin hobeto koordinatuta egon beharko dute eta haiek ahalik eta gehien erabili beharko dituzte. Bereziki garrantzitsua da beraien zerbitzu batzuekiko koordinazioa. Zerbitzu horiek honakook dira: Helduen eta Haurren Buru-osasunerako zerbitzuak eta alkoholismoa eta toxikomaniak tratatzeko zerbitzuak.

Egitarau hauen gehieneko iraupenak ez du bi urtekoa baino luzeagoa izan beharko. Iraupen hori bukatutakoan, beharrezko izanez gero, familiak Famili Eskuhartzera beste modalitate batzuetan parte hartzen jarraitu ahal du udalaren edo Zerbitzu Espezializatuen menpean.

2. GURASOEI LAGUNTZEKO ETA HAIEN LANA OSATZEKO EGITARAU IRAUNKORRAK:

Egitarauok familia batzuei zuzenduta daude. Familiotan gurasoak beren seme-alabak zaintzeko eta berauei jaramon egiteko erantzukizun zehatz batzuei behar bezala heltzeko gai dira eta gurasoek eta seme-alabek oso maite dute elkar, baina gurasoek konpondu ezin diren betiko muga batzuk dituzte (esate baterako, buru-atzerapen arina, buru-arazo kronikoa), beren seme-alaben oinarrizko beharrezko behar bezala erantzutea eragozten dietenak. Kasuotan argi eta garbi esan daiteke ezen ezin dela lortu gurasoek beren guraso-erantzukizunak behar bezala eta lokabeki hartu ahal izatea, baina famili loturei eta elkarbizitzari eustea oso garrantzitsua da haurraren ongizaterako eta garapenerako, eta gurasoek profesionalen laguntza onartzen dute. Kasuotan ezinbestekoa da familiaren egoitzan beste heldu batzuk egotea, zertarako-eta umeak behar bezala zaintzen direla eta haien oinarrizko osotasuna eta segurtasuna bermatuta daudela bermatzeko. Egitarauok haurren babesik ezaren tipologia guztietan esku hartuko dute, familiaren barneko sexu-abusuan izan ezik

Egitarauok epe luzerakoak dira, kasu batzuetan umeak beren buruaren jabe egin arte beharrezkoak direnak. Hala ere, adingabekoaren segurtasuna era egonkorrean bermatu ahal den unean, kasuarekiko eskuhartzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen menpean jar daiteke bere ondorengo jaraipenerako.

Egitarau hauek Zerbitzu Espezializatuetakoa profesionalen gidalerroen menpe jardungo dute. Egitarauok "kasuko ikuskatzaile"aren figura izan beharko dute, Aurreko egitarauan aipatutako espezializazio maila bera izan eta funtzio berberak beteko dituenak. "Kasuko ikuskatzaile" bakoitzak funtzio horiek gehienez 25 familiarekin burutuko ditu (dedikazio osoa).

Egitarauok guraso/tutore/zaintzaileei laguntzeko eta berauek osatzeko funtzioak betetzeko famili hezitzaileak izango dituzte. "Kasuko ikuskatzaile"ak famili hezitzaileak hautatu, zuzendu, berauei lagundu eta berauek ikuskatzeko funtzioa bereganatuko du. Famili hezitzaileek familia bakoitza gutxienez astean hiru edo lau aldiz bisitatuko dute. Bisita bakoitza ordubetekoa izango da. Hezitzaileok astean kasu bakoitzean esku hartzeko bosna ordu izango dute esleituta, gehienez. Beraien funtziook honakook izango dira:

- Familiaren kideekin zuzenean esku hartzea, zertarako-eta lagundu, laguntza eman, irakatsi moldatzeko.
- "Kasuko ikuskatzaile"arekiko haien eskuhartzea ikuskatzea eta haien jardueren plangintza.
- Kasuan esku hartzen duten gainerako profesionalen eta zerbitzuen jarduketara "kasuko ikuskatzaile"arekin batera koordinatzea (esate baterako, Gizarte Zerbitzuena, eskolarena, osasun-zerbitzuarena, buru-osasunerakoarena).
- Kasuan egindako bisita eta jarduera guztiak idatziz erregistratzea.

- Lekualdaketak.

Famili hezitzaile bakoitzak gehienez zazpi familiari egin ahalko die jaramonaldi berean.

Egitarauok eskuragarritasun etengabea izan beharko dute (24 ordu/egun, 365 egun/urte) krisi-egoerei berehala jaramon egiteari begira. Egitarau hauek erkidegoko zerbitzuen sarearekin ezin hobeto koordinatuta egon beharko dute eta haiek ahalik eta gehien erabili beharko dituzte.

3. FAMILIAREN BARNEKO SEXU-ABUSUAK TRATATZEKO EGITARAU:

Egitarau honen helburu nagusia familiaren barneko sexu-abusuko kasu batzuetan familia berriro bateratzea sustatzea da. Kasu horietan Zerbitzu Espezializatuak babeserako neurri bezala haurra familiaren egoitzaik ateratzea erabakitzen du eta, Ikerketa/Ebaluazioaren ostean, familia berriro bateratzeko prozesua egokiesten du, abusatzailea sartuz edo sartu gabe. Egitarau honen azken helburuak honakook dira: abusuen bukaera bermatzea, haurrei egoera horren ondorio txarrak gainditzeko laguntzea eta ahaidetarik babes-figura bezala gaitzea lortzea.

Egitarau honek prestakuntza espezializatu-espezializatuko profesionalak izan behar ditu. Ezin hobeto koordinatutako psikologo/psikiatra talde batek osatuta egon behar du. Talde horrek honakook eman behar ditu: (a) helduen banakako tratamendua, (b) haurren banakako tratamendua eta (c) bikotearen eta familiaren tratamendua.

Eskuhartze mota horren gehieneko iraupena bi urtekoa izango da.

Bigarren eranskina: Haurrak babesik gabe daudenean Esku Hartzeko Eskuliburuaren edukiari buruzko proposamena

Haur Babesgabeen Alde Esku Hartzeko Eskuliburua egiteak Bizkaiko Lurralde Historikoan Haurren Babeserako Sistemaren egungo ibilera hobetzen lagun dezake. Honakoa da, zehazki, eskuliburuak egin dezakeena:

- a) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan eta Espezializatueta lkerketa/Ebaluazioaren kalitatea homogeneizatu eta hobetzea, honakook emanez: kasu motaren arabera bildu beharreko eduki espezifikoari buruzko irizpideak eta informazioa lortzeko eta beraren fidagarritasuna eta baliozkotasuna bermatzeko prozedura, erabili beharreko tresnak, informazioa interpretatzeko irizpideak, familia berriro gaitzeko ahalbideak baloratzeko irizpideak eta kasua orientatzeko irizpideak.
- b) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan eta Espezializatueta Erabaki-hartzearen kalitatea homogeneizatu eta hobetzea, honakook emanez: Haurrentzako Zerbitzuari zein kasu dagokion erabakitzeko irizpideak, premiazko babes-neurria beharrezkoa noiz den erabakitzeko irizpideak eta neurri hori betearazteko irizpideak, banantzea beharrezkoa noiz izan daitekeen erabakitzeko irizpideak, banantzearen iraupena eta itzulgarritasuna edo itzulezintasuna erabakitzeko irizpideak, hautazko harrerako aukerak gomendagarriak diren kasuak (egotetxe-abegi, familia zabalekoa, besteren familiakoa...).
- c) Erakundearteko koordinazio maila jasoagoa (bai Haurren Babeserako zerbitzu espezifikoaren artekoa bai beraien eta beste administrazio batzuen artekoa) lortzea, baita, horren ondorioz, eskuhartzerako bizkortasun eta eraginkortasun handiagoa ere. Horretarako, Haur babesgabeen alde esku hartzeko faseetan parte hartzen duten zerbitzu/agenteei dagozkien rola, funtzioak eta lan zehatzak argitu behar dira.

Eskuliburuak bi zati izan ditzake. (1) Zati bat GUFEn eta Gizartekintza Sailaren Haur Zerbitzuentzat, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuentzat, Egotetxe/Zentruentzat eta Haur Zerbitzuekin itundutako zerbitzu/egitarau espezializatuentzat amankomunekoak da; eta (2) bestea, aipatutako zerbitzu bakoitzarentzat espezifikoa. Amankomuneko zatiak honakook sartu behar ditu: haur babesgabeen aldeko eskuhartzea sartuta dagoen lege- eta administrazio-markoa eta zerbitzu bakoitzaren eskumenak zehaztea; (b) eskuhartze-prozesua deskribatzea, faseak, beraien helburuak, edukia eta prozedura barnean sartuta; (c) prozesu horretan zerbitzu bakoitzari dagozkion funtzioak eta lanak; eta (d) zerbitzuek elkarrekin harremanetan jartzeko eta koordinatuta lan egiteko baliatzen dituzten momentuak eta mekanismoak. Zati espezifikoak zerbitzu bakoitzaren tresnak edo jarduteko prozedurak, irizpideak, erabaki-hartzeak, lanak eta funtzioak zehazkiago deskribatzea hartuko du barnean.

Lehenengo hurbilketa egunez, Eskuliburuaren edukia honakoa izan daiteke:

1. HAURREN BABESEAN ESKU HARTZEKO MARKOA

- Jarduteko oinarritzko filosofia eta abiaburuak.
- Lege-markoa: legeria zibila eta zigor-legeria.
- Haur babesgabeen alde esku hartzeko prozesua deskribatzea: faseak eta helburuak.
- Prozesu horretan zerbitzu bakoitzari dagozkion funtzio orokorrak. Zerbitzuen arteko harremanak
- Diziplinarteko eta erakundearteko lana. Koordinaziorako Bizkaian dauden egiturak.

2. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN ETA GIZARTEKINTZA SAILAREN ESKUMEN ESPEZIFIKOAK

- Maila bakoitzeko jaramon egin behar zaien kasu motak: Arriskua, Babesik ezerako Arriskua, Babesik eza, Zaintza. Egoeron zehazpen eraginkorra.
- OGZen eta Gizartekintzaren banakako eta taldekako lanak eta funtzioak, kasuotakoak.

3. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN ESKUHARTZEA

3.1. Detektatzea eta Jakinaraztea

- Helburuak
- Haur babesgabeen egoerak detektatzearen ezaugari bereziak.
- Detektaketa-iturri nagusiak.
- Detektaketa eta jakinarazpena sustatzeko jarduerak garatzeko era.
- Tresnak eta protokoloak.

3.2. Harrera

- Helburuak
- Kasuaren premiatasun maila
- Informazioa biltzeko protokoloak

3.3. Ikerketa

- Helburuak
- Epeak.
- Bildu beharreko informazioa, prozedura eta tresnak.
- Familiaren barnean sexu-abusua dagoela susmatzen den kasuetako ikerketa.

- Ikerketa-txostenaren eredua.

3.4. *Ebaluazioa*

- Helburuak
- Epeak
- Ebaluazioan parte hartzen duten zerbitzu/agenteak. Beraien papera.
- Bildu beharreko informazioa, prozedura eta tresnak.
- Familia berriro gaitzeko iragarpena zehazteko irizpideak.
- Ebaluazio-txostenaren eredua.

3.5. *Kasu-planaren diseinua.*

- Helburua
- Edukia: eskuhartzearen helburuak, erabili beharreko baliabideak eta epeak zehaztea.
- Kasu-planaren eredua.

3.6. *Familia zaintzeko eskuhartzea*

- Familia bateratu behar den erabakitzeko irizpideak.
- Familian eskuhartzeko egitarauak izan behar dituzten gutxieneko baliabideak eta egitura.
- Eskuhartze-prozeduraren gaineko oinarrizko orientazioak.
- Kasuaren koordinazioa.
- Eskuhartzearen emaitzak baloratzeko irizpideak.
- Erakundearteko koordinazioa.

4. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN GIZARTEKINTZARAKO DESBIDERAPENA

- Desbideratzeko irizpideak.
- Prozedura teknikoa eta administraziozkoa.
- Desbideratzeko protokoloa.

5. ZERBITZU ESPEZIALIZATUEN ESKUHARTZEA

5.1. *Alderdi orokorrak*

- GUFEn eta Gizartekintzaren Haur Zerbitzuen antolakuntza-egitura, eta funtzio-banaketa.
- Kasu-koordinazioa eta talde-lana.

5.2. Administrazio-prozeduraren laburpena

5.3. Beste iturri batzuetatik OGZetara doazen kasuekiko jarduketarako prozedura

5.4. Familiaren barnean sexu-abusua dagoela susmatzen den kasuetan jarduteko prozedura

5.5. Haurraren ebaluazioa

- Erabakiak hartzeko bildu beharreko gutxieneko informazioa.
- Informazioa biltzeko prozedura.

5.6. Premiazko neurriak hartu beharraren balorazioa

- Premiazko babes-neurri baten beharra baloratzeko irizpideak. Alternatiba posibleen balorazioa.
- Premiazko bananketa-neurria betearazteko era. Gurasoek beren seme-alabengandik banandu gura ez dutenean jarduteko irizpideak.
- Administrazio-prozedura.

5.7. Erabakiak hartzea

- Eskuhartzearen orientazioa erabakitzeko irizpide teknikoak: (a) familia zaintzea, (b) aldebatera-ko banantzea eta familia berriro bateratzea, (c) behin betiko banantzea eta norberarena ez den beste familia batean integratzea eta (d) burujabetzeko prestaketa.
- Erabakiak hartzeko eskatutako informazioa.
- CTVM delakoaren proposamenen prozedura eta edukia

5.8. Kasu-planaren diseinua

- Helburua
- Edukia: eskuhartzearen helburuak, erabili beharreko baliabideak eta epeak zehaztea.
- Kasu-planaren eredua.

5.9. Babesik ezerako Arriskuko eta Babesik ezeko edo Zaintzako kasuetako eskuhartzea

- Babes-neurriak deskribatzea: Babesa eta Zaintza.
- Banantzearen iraupena erabakitzeko irizpideak. Epeak.
- Eskuhartzerako prozeduraren gaineko oinarrizko orientazioak.
- Kasuaren desbiderapen Unitate/Atal ezberdinen arteko koordinazioa eta kasuak batetik bestera pasatzeko prozedura (Harrera, Egotetxe Abegia eta Famili Abegia eta Adopzioa).
- Kasuak eskuhartzerako beste zerbitzu espezializatu batzuei bidaltzeko prozedura. Horrelako zerbitzuen artean honakook daude: Egotetxeak/Zentruak, familian esku hartzeko talde itunduak, Famili Harrera Sustatzeko taldea.

- Kasu-plana betearazteko erakundearteko koordinazioa: Haur Zerbitzuko teknikarien eginkizuna, GUFERena, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuena, Egotetxe/Zentruena, Itundutako Egitarauena eta beste administrazio batzuena.
- Kasuaren koordinazioa.
- GUFE eta Gizartekintzaren Haur Zerbitzuentzako, OGZentzako, Egotetxe/Zentruentzako eta Itundutako Egitarauentzako kasuaren Bilakaerari buruzko Txostenaren Ereduak eta Protokoloak.

5.10. *Espedientearen itxiera*

- Babes-ekintzaren bukaerari buruz erabakia hartzeko irizpideak.
- Administrazio-prozedura.

6. EGOTETXE/ZENTRUEN ESKUHARTZEA

- Gutxieneko egitura eta baliabideak. Etxe/zentru motak.
- Funtzio espezifikoak: Egotetxe/Zentruak eta Presazko Abegi Zentruak.
- Jarduketarako oinarrizko irizpideak.
- Egoitza Harreraren Unitate/Atalarekiko, OGZekiko eta kasuan parte hartzen duten beste zerbitzu/administrazio batzuekiko harremana eta koordinazioa.
- Kasuaren Bilakaerari buruzko Txostenaren Ereduak.

7. FAMILIAN ESKU HARTZEKO EDO BERAU TRATATZEKO EGITARAU ESPEZIALIZATUEN ESKUHARTZEA

- Gutxieneko egitura eta baliabideak.
- Funtzio espezifikoak.
- Jarduketarako oinarrizko irizpideak.
- GUFE eta Gizartekintzaren Haur Zerbitzuekiko, OGZekiko eta kasuan parte hartzen duten beste zerbitzu/administrazio batzuekiko harremana eta koordinazioa.
- Kasuaren Bilakaerari buruzko Txostenaren Ereduak.

8. FAMILI ABEGIA SUSTATZEKO EGITARAUAREN ESKUHARTZEA

- Gutxieneko egitura eta baliabideak.
- Funtzio espezifikoak.
- Jarduketarako oinarrizko irizpideak.
- GUFERen eta Gizartekintzaren Haur Zerbitzuekiko, OGZekiko eta kasuan parte hartzen duten beste zerbitzu/administrazio batzuekiko harremana eta koordinazioa.

- Kasuaren Bilakaerari buruzko Txostenaren Ereduak.

Ondo egongo litzateke eskuliburu hau behar beste arduradun eta teknikariek aktiboki parte harturik egitea. Aipatutako zerbitzuetako arduradun eta teknikariez ari gara. Zerbitzu horiek honakook dira: Gizarte-kintzaren Haurrentzako Zerbitzua eta GUFEn Haurrentzako Zerbitzua, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Egotetxe/Zentruak, itundutako egitarauak eta, are, beste administrazio batzuk. Eskuliburua egiteko lan-metodologiak adituek zuzendutako lan/eztabaida-talde oso egituratuaren itxura har lezake.

Hirugarren eranskina: Egotetxeetan abegi egiteko bideak egokitzeko proposamena

Egotetxe-abegiko neurriak adingabeko babestuen beharrianetara egokitzea Haurren Babeserako Sistemaren Hobekuntzarako proposamen honen oinarritzko helburua da. Horretarako, aurretik bermatu behar da Egoitzan Hartzen dituzten adingabekoen eta familien egoeraren ebaluazio eguneratua dagoela, zertarako-eta haien banakako beharrianak eta ezaugarriak zehaztasunez ezagutu ahal izateko. Horrela, honako hau lortu ahal da:

- ⇒ Egotetxe-abegia bukatzea eta adingabeko batzuei hautazko bidea (famili harrera edo famili eskuhartzea) ematea.
- ⇒ Adingabekoen azpitaldeak ezartzea, haien beharrian berezien arabera. Informazio hori oso garrantzitsua da egoitzan hartzen dituzten haurren beharrianerantz erantzuteko beharrezkoak diren egotetxeen mota eta kopurua planifikatzeko.

Azterketa bat egin baino lehen ezin jakingo da zenbat adingabekok egon behar duten egoitzan hartuta edo zein den haien beharrianetarako egokiena den Egotetxe/Zentruen sarearen egitura. Baina aurretik emaitza posible batzuk aipa daitezke, beste Autonomia Erkidego eta herri batzuetan gai honi buruz pilatutako esperientziaren arabera:

- ⇒ Egotetxe-abegiko haurren kopuru absolutuak portzentaia nabarmeneko txikipena izango du.
- ⇒ Gora egingo du egotetxeetan egon behar duten eta 12 urtetik gorakoak diren adingabekoen proportzioak; eta behera, 8 urtetik beherakoak.
- ⇒ Etxeen sareak espezializazio handiagoa izan beharko du. Egin-eginean ere, etxe bakoitzak honakook izan behar ditu: esleitzen zaizkion haurren beharrianekin bat datozen kokagunea, giza baliabide bereziak eta laguntza-baliabideak.
- ⇒ Ahal den neurrian eta adingabekoarentzat beharrezko izanez gero, hura dagoen etxea haren ohiko egoitzatik fisikoki hurbil egotea sustatzea.
- ⇒ Ezinbestekoa da zentru edo etxeko adingabekoen gehieneko kopurua ezartzea. Kopurua ez da Etxe guztientzat berdina izango, talde espezifiko bakoitzaren beharrianetarako egokitzapena sustatzen baita. Hala ere, hobe da etxeek gehienez 12na plaza izatea. Zergati askorengatik kopuru hori gainditzen duen zentruren bat egon daiteke. Zergati horiek honakook dira: adingabekoen ezaugarriak, egitura arkitektoniko zehatza edo antolatze sistema ezberdina. Alabaina, etxeek gehienez 15-20na adingabekoko edukiera izan beharko lukete.

- ⇨ Lehenasunezkoa da bermatzea ezen etxe guztietan honako hau ziurtatzeko beharrezko bitartekoak oro jartzen direla: ezen ezein adingabekok ez duela eraso fisiko edo psikikorik jasotzen beste adingabeko batzuegandik, Etxetik kanpoko helduegandik edo beraiekin lan egiten duten profesionalengandik.
- ⇨ Lehenasunezkoa da Etxe guztietan honako hau bermatzeko beharrezko bitartekoak jartzea: ezen adingabekoen orok beren beharrian fisikoak eta psikikoak estalita dituztela. Alderdi hori bereziki garrantzitsua da, adingabekoen babesik ezeko egoera larriak, eraso fisikoak eta sexu-erasoak jasan baitituzte eta pertsonarteko gatazka larrien lekuko izan baitira. Horretaz gain, adingabekoen beste desegonkortasun-zio bat izan dute: beren familietatik banandu dira egonkortasun fisikoa eta emozio-egonkortasuna beraien garapenerako oso garrantzitsuak diren eboluzio-uneetan. Etxeek beharrian horien estaldura bermatzeko bitarteko egokiak izan beharko dituzte.
- ⇨ Txit garrantzitsua da bermatzea ezen adingabekoen emozio-arreta egokia eta beren beharrian estaldura jasotzen dituztela banandu oste-oste uneetan. Uneotan, adingabekoen beren egoera ulertzen lagundu eta emozio-laguntza eta zaintza guztiak ematen dizkien banakako arreta behar dute. Izan ere, laguntza horrek egoera latz horren ondoreari aurre egin eta berau arintzeko balio izango die.
- ⇨ Etxeen eta Zentruen sareak haurren eta haurrei lotutako aferei begirako beharriari erantzuteko zentru espezifikoak izan beharko ditu. Haur eta afera horiek honakook dira:
 1. **Jokabide-arazo larriak dituzten adingabekoak.** Horrelako adingabekoentzako Etxe espezifikoak sortu behar dira. Etxeek hezitzaile-proporzio altu eta adingabekoen beharriari erantzuteko egokia izan beharko dute, baita adingabekoen beharriari erantzuteko aurre egiteko ahalbidetzen duten laguntza terapeutikoko baliabideak ere. Erkidego Terapeutikoenaren antzeko egitura izan behar dute.
 2. **Hiru urtetik beherako haurrak.** Hobe da egoitzetan hartzen diren adin horiekiko adingabekoen kopuruak behera egitea. Hala ere, aurretik ikus daiteke ezen hurbileko etorkizunean neurri hori hartzen den egoerak gertatuko direla oraindik. Horrelakorik gertatuz gero, haurrok Etxe zehatz batzuetan bizi behar dute. Etxeek adingabeko horien beharrian fisikoen eta psikikoen estaldura eta banakako arreta bermatzeko beharrezkoak diren ezaugarriak izan behar dituzte.
 3. **Beren familietatik premiaz banantzen diren adingabekoak.** Horrelako egoerei jaramon egiteko baliabide egokiak egon behar dute. Beharriari erantzuteko alternatiba batzuk daude aukeratzeko:
 - Berrietako bat Premiazko Harreran espezializatutako Etxeak sortzea da. Horrelako Etxe batzuek barneratzen diren kasuak ikertu eta ebaluatzeko ekipo eta taldeak dituzte. Kasuon lehenengo ebaluazioa premiaz burutu behar funtzio horretaz arduratzen diren Unitateei zailtasunak ekarri ohi dizkie. Ikerketa eta ebaluazio hori Zentruan bertan burutzen bada, Babeserako Sistemako beste profesional batzuen asetasun puntuala saihesten da eta funtzio hori behar bezain laster egiten dela bermatzen da.
 - Bigarren aukera hartuak izan behar duten adingabekoak premiaz hartzeko Etxe-sarean hutsik dauden plaza etengabe gaitzea da. Hobe da (1) funtzio horretarako Etxe kopuru

mugatua gaitzea, (2) Etxeok egonaldi laburra aurrikusi zaien adingabekoei zuzendutakoak izatea eta (2) beraietariko bat Haurrentzako Zerbitzuak estaltzen ez dituen ordu eta datetan polizia egindako adingabekoen sarreretarako erreferentzi Etxetzat hartzea. Bigarren aukera honen abantaila, aurrekoari begirakoa, adingabekoen Etxe batetik besterako mugimenduak txikitzea da. Hala ere, eragozpena banantzeko egoeratik datozen adingabekoen krisi pertsonaleko egoerei jaramon egiteko Etxeon espezializazio maila txikitzea eta funtzio hori duten Etxeen bizitza orokorrari halako desegonkortasun bat gehitzea da.

4. Adingabekoen **egotetxe-abegiaren aldi baterako aurrikuspen edo ezarpenak** bereizketa garrantzitsua dakar haiek Etxeetan jaso behar duten arretaren beharrezanezi begira. Hortaz, aldagai hori kontutan hartu behar da Etxeen Espezializazioan. Egokitzen hartuta dago adingabekoak ustez etxera epe labur edo ertainera itzultzeko hartzen dituzten Etxeen ezaugarriek adingabekoak ustez egonaldi luzerako (bi urtetik gorakorako) hartzen dituzten Etxeen ezaugarrien ezberdinak izan beharra.
5. **Laster adinez nagusiak izango diren eta beraien burujabetasuna sustatzeari begira esku hartzen den adingabekoak.** Adingabekook arreta espezifikoa behar dute, bizitza lokaberako eta beraien lanerapenerako eta gizarterapenerako beharrezko trebetasunak indartzeko. Beharrezkoa da Etxe espezializatuak izatea, zertarako-eta jokabide-arazo larririk gabeko 16-18 urteko adingabekoei arreta osoa emateko.